


BIZENTA A. MOGEL


IPUI ONAK



AUSPOA LIBURUTEGIA

ST-7726

IPUI ONAK



AUSPOA LIBURUTEGIA

28

COLECCIÓN AUSPOA

Administración: Plaza de Santa María, 2-Tolosa

Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala. S.J.

**Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)**

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 200 peseta

Atzerrian: 275 peseta

Ongilleak: 350 »

Ale bakarra: 25 »

BIZENTA A. MOGEL

IPUI ONAK

(IRUGARREN ARGITALPENA)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1963

Depósito Legal S. S. 974/63
Número Registro 3694/63

IMPRESO EN "GRAFICAS IZARRA" - PEÑA Y GOÑI, 13 - TEL. 17381
SAN SEBASTIAN (ESPAÑA)

(Lenengo argitalpenaren ataurria)

I P U I O N A C

CEINTZUETAN ARQUITUCO
DITUZTEN EUSCALDUN NE-
CAZARI, TA GAZTE GUCIAC
ERACASTE EDERRAC BEREN
VICITZA ZUCENTZECO

**Ematen ditu Euscaráz arguitará
ume eta necazarientzat
D.^a VICENTA ANTONIA MOGUEL
ta Elguezabalec**

DONOSTIAN:

Antonio Undiano liburuguillearen echean,
1804 garren urtean

BEAR BECELA

A R K I B I D E A

IRUGARREN ARGITALPENARI ITZAURREA	13
BIGARREN ARGITALPENARI ITZAURREA	25
DON BIKTOR MUNIBE TA ARANGUREN- -GOARI, OSASUNA, PAKEA TA URTE LUZEAK	33
IRAKURLE EUSKALDUNARI	37
I.—Otsoa ta bildotsa	44
II.—Zakurra ta ardia	46
III.—Zakurra ta aragi zatia	48
IV.—Leoia, beia, auntza ta ardia	49
V.—Otsoa ta kurulloa	51
VI.—Gizona ta sugea	52
VII.—Etxeko eta kanpoko saguak	54
VIII.—Arranoa ta aizeria	57
IX.—Belea ta aizeria	58
X.—Leoia, basaurdea, zezena ta astoa	59
XI.—Astoa ta txakurtxoak	62
XII.—Leoia ta sagua	63
XIII.—Ontza ta bere ama	65
XIV.—Enadea ta beste txoriak	66
XV.—Lapurra ta etxe-zakurra	68
XVI.—Eiza-txakurra ta bere jabea	70
XVII.—Erbiak ta igelak	71

XVIII.—Otsoa ta irudia	73
XIX.—Eulia ta mandoa	74
XX.—Eulia ta txindurria	75
XXI.—Otsoa(aizeria ta tximua	77
XXII.—Gizona ta ogi-gaztaia	78
XXIII.—Igela eta idia	80
XXIV.—Leoya ta artzaia	81
XXV.—Zaldia ta leoya	83
XXVI.—Zaldia ta astoa	85
XXVII.—Lurreko abere ta goietako egaztiak	88
XXVIII.—Aizeria ta otsoa	90
XXIX.—Basauntza ta eizaria	91
XXX.—Aizeria, ollarra ta zakurrak	95
XXXI.—Aita, ta seme gaiztoa	96
XXXII.—Eskua, oñak ta sabela	98
XXXIII.—Gizona eta astoa	101
XXXIV.—Aizeria ta matsak	102
XXXV.—Ogi-gaztaia ta sagua	103
XXXVI.—Itzaia ta otsoa	105
XXXVII.—Otsoa ta atxurlaria	106
XXXVIII.—Aragi-epallea ta aria	108
XXXIX.—Txori-artzallea ta txoriak	109
XL.—Gizon egi zalea, gezurtia ta tximoa	110
XLI.—Astoa ta leoya	113
XLII.—Arranoa ta beste egaztiak	114
XLIII.—Leoya ta aizeria	115
XLIV.—Otsoa ta asto gaixotua	116
XLV.—Txindurria ta txirriska	117
XLVI.—Pagoa ta kañabera	118
XLVII.—Mandoa, aizeria ta otsoa	120
XLVIII.—Mika egarritua	123
XLIX.—Nekazaria ta idisko gaztea	124
L.—Piztia itxusi ta gizon bideaztia ...	126

IPUIAK, ITZ NEURTU EDO BERTSO
EUSKARAZKOAN

ADIGARRIA	128
I.—Andra alarguna ta olloa	131
II.—Otsoa ta antxumea	132
III.—Lapurrak eta ollarra	134
IV.—Baserritarra ta basaurdea	136
V.—Zakurra ta katua	141
VI.—Kata-motza ta zakurra	142
VII.—Katu eizari basokoa	144
VIII.—Astoa ta otsoa	152

Irugarren Argitalpenari ITZAURREA

Euskaldunok literaturarik ez degun iritzia, asko ez-ezik, larregi zabaldua dago. Aoz-ao erabiltzen da iritzi ori ta ez beti errazoi geiegiz. Lafitte, Mitxelena ta Villasanteri esker, berek idatzi dituzten euskal-literaturaren kondairak argia zabaldu dute, len beste uste bat zuen erkide ta arrotz artean. Ala ere, oraindik erdi billutsik degula esaten jarraitu geneza beardan aña ornitzen ez degun artean.

Orain geienok jakiñaren gañean gaude gure izkuntza ere literatura apur baten jabe dala. Baña, dala bakarrik. Dan ori erabiltzeko gauza ez balitza bezela. Erri txikia izanaren kalteaz gañera, ez bai du gure erri onek idatzitako literaturaren egarririk azaltzen. Arrigarria, aozko literatura orren aberatsa izanik.

Okerrena, ordea, geure burua euskal idazletzat daukagunok ere ez degula ezagutzen gure jatorrizko literatura zarra. Parkamen apur bat bada arkitzen ez diran liburu za

rrak ez ezagutzean. Baña, gañerakoan, literatura txiroan jabe baldin bagera ere, degun apurtxoa ezkutuan degu, ta merezi dutenak illunpetik atera bearrean gera. Puxketa garesti oietan bada zear ikasirik.

Mogeldarrak ederki landu zuten, amaika gauza jakingarri idatziaz. Osaba-illobak ortarako doai bikaña izan zuten. Osabaren *Peru Abarka*-gandik jaso ditugu ainbat gauza jakingarri orduko bizitzari buruz, baña bere irakaspideeri esker, betikotasunezko gaian jardun zuana, Bizenta A. Mogel, bere illoba izan zan. Nork ez ditu entzun bere aurtzaroen Otsoko ta Aizeriko-ren ipuiak? Atzokoak, gaurkoak eta hierkoak dira; ta betikoak izango dira aurrik lur-azalean dan artean. Orrelako ipuiak, belaunik-belaun. millaka urteak zear kezkatu dituzte munduko aurrak. Ta ori da liburu ontako ipuien alde agiririk onena.

Umeak eurak izan dira aukeratze ortan erabagia artu dutenak, ta ala bear ere. Aurren psikolojiaren berri, berek baño obeto iñork ez bai daki. Literatura liburuak ez bai dira bestelako ikaskizunen bezelakoak. Ikas-teko, geienetan derrigorrez sartu bear zaie aurrei; baña literaturak herez bear du. Gogoia betetzeko, zenbat eta errezago obe. Alegia, ortik bai dator irakurtzeko zaletasuna.

Auek, Esoporen ipuiak dira euskerara itzulita. Esaten denez, Sorkaldetik Europa-
ra zabaldu ziran ipuietan omen dute beren
iturburua. India aldean jaso bai dira orre-
lako ipuiak. Esopo greziarraren berriak be-
randu jasoak dira ta ezer gutxi dakigu be-
re bizitza ziurrari buruz. Ustez, 40-tik 200
ipuiara ezarritzen dizkie beretzat.

Era ontako ipuiak, Euskalerrian bertan
ere oso zabalduak daude. Barandiaranek ja-
so izan ditu (1) eta baita Azkuek berak ere
banakaren batzuek (2). Beraz, mundu gu-
zia ta garai guziak dira ipui oien jabe. Era
ontakoak erabili zituzten Fedro, La Fon-
taine, Iriarte, Samaniego ta beste askogan-
dik onuntza ere, tartean gure Paskual Itu-
rriaga dalarik, zineman sartu arteraño. Uste
det Pat Sullivan izan zala lenengokoa, bere
Félic Katua aipatuarekin, ta bere ondoren
Walt Disney izan da, jatorrizko erri-ipuieri
jarraituaz, zineman gaurko erara onduen
gallendu dituana.

Bizenta, Azkoitian jayo zan 1782-garrene-
ko garagarrillaren 6-an, bere aita erri arta-
ko mediku zala. Eta, alargunduta il zan

(1) *El mundo en la mente popular vasca* (tomo II), 128/159 orrialdeak. Colección Auñamendi. Donostia. 1961.

(2) *Euskalerraren Yakintza* (tomo II) Espasa-Calpe, S. A. Madrid. 1942.

Abandon (Bizkaya) 1854-garren urteko San Pedro egunean. Bera ta Juan Jose (3), bere anaia, gaztetxorik umezurtz gelditu ziranean, Juan Antonio osabak jase zituan Markina. Ta, berarekin an izan zituzten zorionezko ikastaroak *Baserritar jakintsuaren etxeko eskola*-ren egilleak eta *Ipui onak*-renak. Egillea deritxot, legez orrela ezpada ere. Ez bai litzake izango lenengoa ta azkena ipui oiekin jabetzen dana. Baña, izatez, bere-bererik Esoporen aldakuntzaren ondoren jartzen dituan aterakizun bakoitzaren aurrekaldeko oarrak bakarrik ditu.

Ipui onak bi argitalpen izan dituzte. Al-dizkarietan atalka izan zituan argitalpenak ez ditugu kontatuko edizio bereziak bezela; ez bai ziran liburu erara argitaratu. Lenengo aldiz 1804-garren urtean (Juan Antonio osaba il zan urte berean) Donostiako Undiano liburugillearen etxean. 1880 Bil-

(3) Juan Jose Mogelen jaioterriari buruz oraindik zalantza guziak erabagitzeke daude euskalari askorentzat, baña esan bearrean gaude Justo Garatek, gure azterle zorrotzak duela errazoa, bere *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel* liburua-ren 41-garren orrialdean dion bezela, Debako errian bataiatua izan zan 1781-garren urteko apirillaren 26-an. Ta eztago dudarik bertan jaioa zana, Juan Ignacio bere aita erri artako mediku baizen urte aietan.

Neronek egin dedan azterketa batean arkitu bai det bataio agiri ber-bera.

boko "Beti bat" aldizkarian berriz argitaratuak izan ziran. Gero, 1912-garrenean Donostian "Euskal Esnalea"-k eta bertatik aparte beste liburu berezi bat egin zan, "Euskal Esnalea"-ren izenean, Martín, Mena y C.^aren etxean, Txomin Agirreren itzurreakin. Orrez gañera ainbat aldiz agertu izan dira banaka aldizkarietan.

Bizentak izlaur egindako berrogeitamar ipuieri osabak bertsoz idatzitako zortzi alegik jarraitzen dizkie. Bizentak dionez, bere osabak pilla galanta zuala idatzita ta bertatik artuak adigarri ipiñi omen zituan zortzi oiek. 1803-ko irallaren 7-an, Juan Antoniok Vargas Ponceri idatzi zion karta batean zion: "Las Fábulas en la parte de la prosa salen en su nombre. La hice trabaxar, y hallaba io poco o nada que corregir. Se las dedica a D. *Victor* de Munibe; pues se trabaxan para la diversión e instrucción de los Niños, y merecía un Joven tal la dedicación de ellas. La dedicatoria está en bascuence. Aun lo ignora su Sor. Padre y lo sabrá quando se le presente el impreso. Van "varias en Poesía" de diferente metro. Tengo trabaxadas "otras muchas" para hacer ver que el Bascuence, nada cultivado en este ramo (sino sólo en los llamados zortzicos y quartetas), es adaptable a todo me.

tro" (4). Ta beste batean ere orrela zion: "Yo, además de los Diálogos que cité a Vmd., he trabajado a versión vascongada. ya en prosa, ya en verso vario no pocas fábulas de Esopo y Fedro" (5). Nunbait galdu ziran ipui oiek. *Peru Abarka*-ren egillea ustegabean il zan berrogeitaemeretzi urte zitualarik, gexo bat ikustera joan zanean kutsapetuta. Oraindik bere lanik geienak argitaratzeke zeuden, ta albistea izan degunen artean, *Kristinauaren erakuspena*, euskera-erderazko iztegi bat eta Vargas Ponceri idatzi zizkion kartetan aipatzen dituan alegi oiek dira galduak. Ta ez degu iñoiz arkitzeko itxaropenik.

Ipui onak, irugarren argitalpen au ondo merezi zuten. Ez bakarrik aurren literaturaz urri gabiltzalako, baizik gaurko irakurle ta batez ere idazleentzat ezaugarria deritzagulako.

Maizegi aztertu degun auzia degu idazle zarren joskera euskaldun jatorra dan ala ez —Agirrek ere, bere itzaurrean, ikutu

(4) *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel*, Justo Garatek egiña, 92 orrialdean. Bizkai-ko Diputazioaren *Junta de Cultura Vasca*-k argitaratua. Bilbon, 1936-an.

(5) *Historia de la Literatura Vasca*, Luis Villante, 246-garren orrialdean. Editorial Sendo. Bilbao, 1961.

zion auzi mingarri oni—. Izango da errazoi apurren bat, baña ez uste aña. Lan au beintzat, kontuan izan itzulpena dala, ta itzulpen bat egundo ezta izaten jatorrizkoa bezela. Orregaitik ez uste izan jatortasuna ez-tuanik. Jatortasuna badu. Ulerterreza da, ta ori ezta beti gertatzen euskerazko liburuekin.

Zer da izkuntza baten premiazkoena, ulerterreza ta jatorra izan ezik? Idatzitakoa ez alda besteei adierazteko? Ta, adieraziko bada, ez alda, nai ta nai ez, ulerterreza izan bear? Ba, ori da idazle baten lenengo bete bearra. Ta, aldia ortatik Bizentak eztu akatzik.

Gañera, Bizentaren idazkera jatorraren iritzi ori lasai utziko degu irakurlearentzat. Nik ez dakit zergaitik, baña euskal liburu bati aburua egin bear zaion bakoitzean, izkuntzari buruz larregi jardutzen gera eta liburuaren mamiari buruz oso gutxi edo bategeretz. Au ezta iñungo mintzairetan gertatzen. Orrenbeste euskalkin zakabanaturik gaudela, beste izkuntzetan baño eroapen geiago bear genuke. Badirudi, bakoitzak norperan euskalkian ingurua duala eredu. Zorioneko erdibide ori ezta orren erreza. Gaur-gaurkoz, legeak, zuzenbidea eskatzen digu, ta zuzenbide bat bakarrik degu: alka-

rrentzako eroapena. Ori da tolerantzia bi-dea.

Ikusiko dezutenez, Bizentak, bere itzau-rean etimolojiz ari danean labankada ederrak egiten ditu. Gaurko etimolojilarientzat ere oargarria benetan. Bere egunetan etzizaien ori idurituko, ta gogoan izan bearlukete gaur ere ortaz diardutenak. Parregariak dira etimolojiaz egin diran eta egiten diran lanik geienak. Amaika denbora, tinta ta paper eman dute euskaltzaleak ortaz, euskal literatura landu bearrean. Gaurko etimolojilariak ikusi bezate Bizentagan beren izpillua. Beren burua erretratatzeko orrek geroakoen aurrean orretara agerreraiziko ditu.

Beste gauza adigarri bat da, euskaldunen artean lenbiziko emakume idazlea degula. Dirudianez, arrigarria garai artako giroan. Aintziñako denboretan, beste izkuntzetan ere emakumezko gutxi izan dira idazle. Gure inguruan, askoz lenago, Margarita Nafarruako erregiñak idatzi zituan zenbait ipui Toribio Etxebarria eibartarrak euskerara itzuliak ditu ta *Egan*-en ari dira argitaratzen (6).

Txomin Agirre, emakumezkoak edozer gauzatarako dituzten almeneri buruz jardū.

(6) *Egan*. "Julio Urkijo" Mintegiaren aldizkaria 1962-go. 4-6 zenbakia. 266 orrialdea. Donostia.

tzen da bere itzaurre orretan. Ezin uka, sozialismoari buruz atze txamarrean egoana (*Garoa*-n eibartarri buruz ari danean ezta asko luzitzen, nunbait gure izaera ta jokabidea etzituan ezagutzen iturri onetik) naizta gañerakoan idea naikoa aurreratuak izan gure egille illezkorrak. Urteak ez dira alperrik igarotzen, eta emakumea, umegintzarako ta etxezaiñerako baño geiagotarako ere aintzat artzera etorri gera. Azkenik, Joanes XXIII-garrena ere orrela mintzatu da bere "Pacem in Terris" enziklika ortan.

Bizenta Mogelek, liburu onez gañera, beste lan batzuek ere idatzi zituan, Bizkaiko euskeraz bertsoz antolatutako: *Gabon-kantak*. Kanta auek, Urkijo jaunak argitaratu zituan Aita Juan Mateo Zabala-ren ipui batzuekin batera, bere zuzendaritzapean argitaratzen zan aldizkari aipatuan (7). RIEV, 1909-garren urteko 36-38 orrialdeetan, aldizkariak dakar *Peru echurlari alperragaz Yoane nekazale cintzoaren arteco berbai-cuntzea*. Bere asiera du:

"Peruc. Ez daucat gogo onic
 aurtengo urtean
 pozagaz contetaco
 suaren aurrean"

(7) J[ulio]. de U[rkijo].: *Fábulas en dialecto vizcaíno*, RIEV, I (1907) 88-97 eta 529-543 orrialdeak; III (1909) 27-40 orrialdeak.

Kanta auen su-emalle, nunbait, Ulibarri okendoarra omen zan, Lino Akesolon iritziz (8). Baña ezta dudarik gure emakumearenak dirala. Ulibarriren berriak aztertu dituan Aita Lino ber-berak au esan zidan Bilbotik egin zidan gutun batean: "*Peru ta Yoane* orren *berbakuntzia* Vizenta Mogel'ena da noski. Urkixo'k esan zuenez, ala omen dio Aita Zabalak, gizon jakintsu urak Paris'en arkitu zuen "Manuscrito" artan. Beste urte batzuetan ere, Vizenta ori izan zan Bilbo'ko *Gabon-kanta* ospetsuen eguille ta ontzalle. Emakume orrek, (lotsorra izan nonbait-eta) etzuen jarri, nik dakitala, bere izenik kanta oyetan. 1818'koetan. V.M.B. ageri da. Vizenta Mogel Basozabal, nonbait, bigarren abizena bere senarrarenari dago kiola? *Peru ta Yoane* orren bertsoak 1832'ko Gabonetakoak dira, eta izen gabe argitaratu ziran. Baña kontu: Urkixo jaunak utz bat sartu zuen bere kopian: "Ai Peni, Peni zara / zu beti alperra" eman zigun, "Ai Peru, Peru..." jarri bearrean. Gaizki irakurri ala inprentako utsa? Bertso oyek oraindik ere entzuten dira emen inguruan, baña ita-

(8) *Zortzikote* (Olerti sorta, 1962. I-II) 133-garren orrialdean. (*Armutil* izen-ordeakin egindako *Euskal-esnale ta euskal-idazle Yose Paulo Ulibarri, Okendo'ko semea* idazlanean). Larrea - Amorebietan argitaratua.

noka: "Ai Peru, Peru, Peru, / i beti alpe-
rra..."

Azkenaldera zergaitik ez ote zuan erabi-
lli bere izenik? Nausituz lotsati biurtu zala-
ko ala ezkondu ondorengo erabagiz? Dana
dala, ixillian egin zituan lanetariko asko ez
dira umezurtz gelditu. Ama on bat dute.

Bizenta A. Mogel-en euskerak, ala Txo-
min Agirrerrenak, eta baita nereak, gipuz-
koarren euskalkiz jardunarren, badu bere
Bizkai kutsua. Esaera, adiz-joko ta erabil-
tzen ditugun itz ugaritan nabari zaigu gi-
puzkera ez degula amaren bularretikakoa.
Au, gipuz-giputxak obeki somatuko digute
noski. Txomiñek gipuzkoera ongi menpera-
tu bai zuan ere, era askotan agiri zaio biz-
kaitar kutsua.

Azalpen oiek izango al dira, akatzik bada,
irakurleak eroapena izan dedin.

Edizio au antolatzeke lenengo argitalpena
izan degu gidari, ta, itzik-itiz, guzia berak
idatzitako bezela uzten degu. Bi gauza dira
aldatu ditugunak: bata, grafias gaurko eran
ipifii; ta bestea, puntu guziak jarraipenez
zituan eta bear zan tokietan banandu. Or-
tarako, 1912-garrengo argitalpenari jaramon
egin diogu. Txomin Agirrek orrela eratua
izan bear du. Era orrek ez bai du ezer al-
datzen, eta bai irakurleari lagundu.

AUSPOA ari zaigu degun literatura zaar mirritzari autsak kentzen, ta beren artean ezin faltatu *Ipui onak*. Goiatze oberik ezin genezake egin, esanaz: millaka urteak zear aoz-ao, aurrak ez-ezik gizonak ere, erabilli dituzten ipuiak, berez daramatela egiztatze ederraren indarra.

Juan SAN MARTIN

Bigarren Argitalpenari ITZAURREA

Emakumea gizaldiko lorea omen da.

Lorea edo arantza izan diteke, galburua edo asuna, eroa edo zindoa, gaizkiña edo aingerua.

Nolako mendua daukan, nolako asiera eman zaion, zer ikasi duan, zer erakutsi dioten.

Emakumeak, gizonaren antzera, bere griñak oi ditu, bere amesak, amesak batez ere. Ezta gizona bafio ohea, ezta gaiztoagoa; bafia bigun, samur, gozakariagoa bai, erreza-go beratu ta zuzendu oi dana bai, geienetan.

Ta biguna dalako, asieratik zaintzen badegu, eskutik artez badarabilgu, gauza on andien iturri egin geinke emakumea.

Antzifietako auzia da etxeko arazoetan jardun bear duan, ala beste arlo astunagoe-tarako almenik ote daukan.

Ezetz ta baietz diote; ni baietzean nago.

Emakumeak, biotz limurra izanarren, bu-

rua ere badu, gizonak añakoa askotan, sarri ohea. Ta eztio eman Jaun Egilleak ille kiskurrez edo txapel ederrez apaintzeko; eztio eman uskeri, ames, txoro gauzetan adimena-ren altasuna alperrik galtzeko.

Ez, adorea lurpean sartzea ezta ondo: gizonaekoari bezela, egiaren argiz jantzi bear zaio andrazkoari, jakiturirako bideak osoro zabaldu bear zaizka, alegiñ guztiak egiñ bear dira emakumea zintzotzen, aldegun guztia erakutsi bear genioke; ori bai, berrari dagokion mallatik erten gabe, bere gaitasunak eskatzen duan neurrietan, samurki, garbiro, arretaz, animaren erdian ontasunaren azia boteaz, gazte dan hitartean jakintsu beziñ elizkoi egiñaz.

Kalte egingo diola geiegi jakiteak? O! Eztaukagu geiegiaren bildurrik. Nork ikasi du geiegi? Nork daki asko? Zefiek naikua? Ez, geiegiak ez kalte, gutxiegiak izatekotan, gutxi jakinda erruz dakitelako usteak kalte, amaika gizontxori gertatzen zaion irudira Esanak esan, erruz ikasi dualako ezta ifoiz emakumea ondatu; gaizki azi dutelako bai. txorakeriak erakutsi zaizkolako bai, polita dala, lirafiña dala ta galanta dala, gezur-aizez arrotu degulako bai.

Ta berez bada gezatxoa ta buru ariña, txorakerietara berez badijoa ta beti amesetan

badabill? Gatz pixka bat eman, txaldanke-
ritik alderazi, amesetatik atera, zuzendu, ga-
raian zuzendu.

Zefiek? Geuk, prakadunok; gurasoak, se-
narrak, anai nagusiak, dana dalakoak. Ez-
kabilitz egunero emakumeak baño azkarrago
gerala adierazten? Agertu dezagun gure az-
kertasuna andre, arreba ta alaberi keme-
na maitero eskeñiaz. Ikusi gaitzabela ongi-
lla ta indartsu, esker onez begiratu daigute-
la, begirunezko lokarriz guganatu daitzagu-
la. Elizak laguntzen digu lanbide orretan,
Elizak egin du andrazkoa gizonaren mende-
ko, Jesusen legea daukagu gure alde. Ta Je-
susen legeko andrea, elizkoia dan emaku-
mea, aisa jarriko da gizonaren aginduetara,
zenbat eta elizkoiago, ainbat eta errez, apal
ta atsegiñago.

Etxekoandretzat nai genduke? Etxekoan-
dre izango da, geuk nai degun guztia izan-
go da, agintzen badakigu.

Nerekiko, etxea da emakumearen bizile-
ku ta lantegi aukerakoena; etxean egon
bear du geienbat, gauza guztiak txukun-
tzen, antolatzen, guraso-senar-anaiak alai-
tzen; baño, erritarra dan aldetik erriari zer-
bait opa bear dio, Jaungoikoaren alaba dan
aldetik Jaungoikoarekiñ batera jokatu bear
du.

Alderdi guztietan dauka zer-egina. Denok dakigu: amarik eztan etxadia, etxadi loi ta baldarra izan oi da; andrerik eztaukan erria, lili ta ezti gabeko erri beltz latz ta garratza; emakumerik eztagoan Eliza, arren gutxiko eliza otz, ixill ta illuna. Ara zergatik Jaungoikoak eta gizonak egin duten emakumea etxadietako erregina, errien alaitasun ta elizetako aingeru gozo. Asko, txit asko zor diote etxe, uri ta Eliza doneak. A, zenbat aldiz gozatu duan gure biotzaren samina ama kutunaren itzak! A zenbat aldiz andrazkoen txaloak sorterriagatik lanean jarraitzera dendatu gaituzten! A zenbat aldiz, ordurik larrienetan, emakume iaioak atera duten beren arpegi ederra Jaungoikoaren alde, gizonak haño milla bider beroago, gogotsuago, ausarditsuago! Aitor dezagun: buru oneko ta biotz garbiko danean, emakumea bezelakorik eztago. Bakoitzari berea.

Esango alditugu emen kondairetan dakusgun emakume batzuen izenak? Zertako? Bizenta Mogelen oroitzak jarri digu eskuetan gure lumatxoa, ta bere izena aitatzea naikua deritzot.

Andre onen egintza txit izan da euskaldunen ongarri, oitura zintzoen laguntzalle ta Elizaren erakutsiaz batera berdin datorrena. Euskera jakiteak etzion. bada, gaitzik egin,

ezta ere Esopo, Fedro ta Birjilioren izkera ikasteak. Anai ta osabaren ondoan, erdi jolasean, buruari neke gogorrik eman gabe, loari bere orduak emanda, arrotz oien mintzoera ulertzea laster iritxi zuan; aurki ari zan euskeraren sorrera ta sustraiak aztertzen; bereala ekin zion alzituan ezaguera denak adimenez idorotzen; egi sakon bartzuek batu ta gorde zituan gero biotzaren erdian; ta azkenean gero, liburuetan iritxiriko argi ta ezaguntza osoa, lortu zuan jakituri apurra, berak zekian guztia, Sorterria maiteari opa zion, euskeraz!, amaren izkuntza. Ara or goremnik andienetarako ziota gaia.

Urri dala derizkionak geiego egin dezala.

Goseak dagoanari ogi osoa, otaza izanda ere, etzaio gutxi iruditu bear. Ta gu liburu gosean gaude.

Banan banan irakurri ditugu Andra Bizentaren ipuiak. Gure ustea? Bi lerrotan azalduko degu. Euskera garbian biurtuak dira, bafía nungo orubetik datozen agirian daukate; gure jazkera, menditar jazkera ipiñi zaiote, bafío arrotz usuaia eztute utzi; itz eder egokiak dakarzkite, bafía itz oiek, gure mintzoerari dagokion bezela, beren leku berezietan jarriak eztaude. Ezagun zaio egilleari, mingafía edo lumea euskeraz ze-

rabillen bitartean, burua erderazko goga-
menetan zebilkiola. Eztedilla iñor arritu.
Gaitz ori aspaldiko gaitza degu: aspaldikoa
ta askorena, Mogelen egunetakoa ta gaur-
koa, Bidasoatik aruntz ta onuntz edozeiñ to-
kitan dabillen izurri lizun iraunkorra. Nork
eztu ikusi ta entzun euskerazko itza erde-
razko biurrietan?

Eztet iñor makurtzeagatik esaten. Lurre-
an lizun gabeko gauza gutxi oida, Euskal
errian gutxiago, liburu lanetan beintzat.
Asiera ta moldakaizkeria alkarrekin dijoaz.
Gaur ta biar ta etzi, luzaroan oraindik, li-
zunak eta likitzak, oriñak eta koskak, lan-
du, leundu ta txukundu bear aundiak izan-
go ditu gure izkuntzak, berez aifñ sendo, gu-
ri ta bikaña izanarren.

Ezta bada ezer galduko liburu onek ere
erdaldunen biurrikeriak dauzkala esanaz.
Ala ere, Andre Bizentak idatzu zuan gara-
ian, etzan iñor berak bezela idaztuko zuan
emakumerik, bakarra zan edo bestien arte-
an gallurren gallurrenekoa; edozeiñ gizo-
nezkok beziñ mardul jatorrizko euskera
ugari, naro ta aberatsean mintzatzen zeki-
an andrea. Orregatik izan da bere izena aifñ
ospatsua ta maitagarria euskalzalientzat,
orregatik dakargu oraingo gaztien ikasbi-
derako.

Andre ura bezelakoak nai ginduzke gaurko euskaldun emakumeak.

Ura bezelakoak ez, obeak nai ginduzke, zenbat eta obeak naiago.

Ia obeak ertetzen duten nunbaitetik, ia Andre Bizenta garaitzen duten asaba zarren izkuntza apaintzen.

Asi, Euskalerriko alabak; ekiñ lanean, saiatu euskeraren alde, lagundu guri.

Domingo AGIRRE

Don Viktor Munibe ta Aranguren-gori

Osasuna, pakea ta urte luzeak

Nere zalduntxoak: Artu ditudan ezkeroko go-goak argitara emateko *Ipui onen* liburutxo bat, erabaki bear nuan nori bere eskintza egin. Buruari neke gogor ta gogaitzarririk eman gabe, nori asmatzen, zu izan bear zifian, nik autu bear nuena. Ipuiok atera nai ditut gaztetxo, ta nekazarietzat, edo Bizkaian esan oi dan bezela, nekezaleentzat. Zure urte laburrak gaztetxoen artean ipintzen zaituzte. Nai banu agertu zure andikitasuna jatorriz, ta zure asaba jaunen argitasuna goi goi ipifii, erraz izango nuke aitatzeaz bakarrik Munibeak, Idiakezak, Ugarteak, Aranzibiak, Sasiolak, Arizagak, Arangurenak, Alabak, ta onelako beste izen eder ezagutuak non nai. Zure asaben artean arkituko nituke Loiolakoak ere, ta elkartzen, ta odoltzen zerala lurreko lau alde, ta zerruan ere ezagutua dan San Ignaziorekin. Au ala da; baña itz alperrak dira onelakoak zuretzat. Nekazari baten semetxo bati egingo diozu zuk agur ain gozoa, nola errege ba-

tenari, ta orobat da zuretzat abarkadun multitxoa nola, zapata bitxituz estalia.

Badakit jatorriz bezela dakartzula nekazariei asko nai izatea, ta arpegi gozatsua erakustea. Ezagutu zutenak izen oneko zure aita-aita jaun D. Xabier Maria Munibe ta Idiakez-ko, ez daukate azturik bere lautasuna nekazari guzientzat; nola ematen zioen eskua estu estu, ta laztantasunez baserritarrai. Zenbat bere errenterok esan oi zuten: "ez degu iñor, gure nagusiak baño agur gozoagorik egiten digunik!" Bere atsegin guzia zan jakitea ondo bizi zizala bere errenteroak, ta gogoan zerabillen, oen izerdiak diru guziak baño geiagora igoten zuela. Onegatik zuten ain maite, ta ez zuen gutxiago irabazi alde onetatik bere izen ona zabalteko, bere jakituria, ta beste doai andietatik baño.

Berriz zure aita jaun, ta nere ongille D. Antonio Maria Munibekok bularretik bezela dakar nekazarien maitetasuna. Zein sarri entzun oi dan Markinan, ta bere inguruetan, Konde Peñafloidakoak baserritarrai egiten dioen *agur ederra!* Bestetik, ez da bizi bere borondatez, ta aukera osoz baserritar eginda bezela? Bai: Erri andietako ospe, iskanbilla, ta kateatasunak baño naia-go du Munibeko jauregi baserrituan lauki

egunak igarotzea, andiusaiak alde batera largarik, o nere zalduntxoak! jostatzen da zurekin, ta zure arreba, ta here alaba bikiekin; jolasez bezela, agiraka, mukertasun, ta zigor gabe erakasten dizutela irakurten, ta izkribitzen. Zein ikusteko ederra azitegi, ta ikasleku eginda Munibeko etxea, ta zure arreatxo Maria Pilar, ta Maria Karmengo amandrearen aldamenen berai ditzaizken esku-bearretan.

Berriz, nolakoa zure poza ekusten txaltxoak jostatzen zelaian, izutu ta gogaitik egin gabe enzuten dituzunean idi, ta beien orroak? Bildotsak dabiltzanean parlanzuan, nolako farra gozoak? Zoazenean gaztañadietara, ta arkitzean perretxikuak, nolako pozarekin ez zoaz aita jaunari esatera: "topatu ditut *urdin* eder bat, ta *urritx* bi bareak jan gabeak"? Au bai dala bizitza kategabea, ta erri andietako lotutasun, edo labafikerierik ez duena!

Orain bada, zu zera guziz ipui zalea. Aua zabalik enzuten egoten zera aspertu gabe aita jauanak kontatzen dizkitzunean. Leiatzen zera zeu ere buruz ikasten, ta besteai gero kontatzen. Berriz euskera egiten dezu, dala Giputzen, dala Bizkaitarren gisan. Guzira zaude egifia. Beraz alde guzietatik zor nizun zuri liburu onen eskintza, edo presen-

te labur au. Arkituko dezu kanta gaitzat katu eizarieren ipui zortzikoan berariz ipiñia. Badezu nork zortziko berri bat soñuaa atera, ta irutzen bazera arreba gaztetxo aiatatu ditudanekin, zein ederki irtengo duen katuaren zortzikoak. Aita jaunak biolinarekin laguntzen dizutela! Arzazu bada nere borondate onaren agermena, ta gelditzen da zure agindura, zure eskutxoai muñ egin naiz.

*Bizenta Antonia Mogel
ta Elgezabal*

IRAKURLE EUSKALDUNARI

Badakit, enzunaz beste gabe, neskatx gazte baten izena dagoala itxatsirik liburutxo onen aurrean, jardungo dutela siñuka ez gutxi, diotela beren artean. iñoren lumaz janzi nai duela bela txikiak; au da, besten bearrak artu nai ditudala neretzat: ez dago kiola neskatxa bati bururik ausitze liburu-giñen: asko duela gorua, naiz jostorratza zuzen erabiltzea. Nola nik siniserazoko diet askori, euskeratu ditudala erdaldun jakitunak argiratu dituzten ipuiak? Nolako arrotasuna berriz latinezko itzkuntzarekin liburu onen asmoa agertzea? Orretarako bear litza-ke jakitea euskera, gaztelania, eta latinezko iru izkuntzak. Zein gauza sinisgaitza neskatxa bategan!

Naiz sinistu, naiz ez, esan bear det, gazetxoa nintzala irakurri ta azaldu oi nituela Fedroren latinezko ipuiak; artu oi nuela atsegin guziz andia enzunaz txakur, otso, aizeri, ollar, abere, lauofieko, ta egaztien itzketa alkarren artekoak. Zortzi urte nitue-
nean ekusirik nere neba, edo anaia ikasten

asi zala gure osabarekin latiñezko izkerea. jarri zitzatan buruan ikasi bear nuela nik ere. Ala, buruari neke gogorrik eman gabe, loari bere orduak emanda, ta zigor zaurigarriaren beldurrik ez nuela, jolasez bezela, irten nuen nere asmoarekin. Virgilioren itz-neurtu, ta apainduetan gozaten nintzala. Edozeñek daki Esoporen ipui latiñez, ta itz lotu gabeetan daudenak, errazagoak dirala aditzen, Fedro, ta Virgilioren itz lotuak baño.

Umeago nintzanean berriz enzun oi nituen, zoro zororik, ta pozez erotuta, atso ipuiak. Sinisten nituen egia andi batzuek bezela, *Peru*, ta *Mariaren* ipui farragarri, ta sustrai gabeak: enzunak enzunda ere, aspertu ezin nintzan; ta pakerik ematen ez nien atso gaixoai berriz ta berriz esateko alako ipuiak. Au da aur guzien gaitza, edo zoratasuna. Orain bada, ondorik, ta ondorengo onik ez zekarten ipui eroak anbat atsegin ematen bazidaten, nere adinaren argiabarretan sartu baño leenago, zenbat eztituko ez zan nere biotza irakurri nituenean gerora ipui onak? Lenengoan enzuten nituen algaraz, ta pozez aizeriaren asmo, gaiztakeria, ta asko jakiñak; bere berriketa, ta jardunak. Baña azkenean irakurrik ipuiaren aterakizun, ta ondoren ede

rra, ta nenkusanean, oskol, edo azal zatarra ausirik, barruan zegoan mami gozoa, oroitzen ninzan erle dontsuaz, zefiek lora eder ez diradenetik ere, atera oi duen ez-tia, ta egin gero erlaunzean abaraska, edo abao aurtxoan ezpañak gozaten dituztenak.

Deritzat enzuten nagoala mutiltxo, neskatxatxo, ta nekazari askoren farra, ta al-gara gozoak irakurri, edo aituaz ipui oek; ta nola geroenean ixildu ta arrituta bezela geldituko diran ipuiaren ondoren adigarr-riak ekusirik. Nork esan zezakean, esango dute, zertara jo bear zuten ipui farra eragitekoak? Zein ederki adierazoten duten estalki ederren azpian, andikiak, txiki-kiak, ta jakintsuak berak ikasi bear dituz-ten, onak izateko, bideak!

Esan oi dute ero erorik nekazari batzuek, anziñako egunetan itzketan zekitela txakur, katu, aizeri, otso, ardi, ta ipuie-tan ateratzen diran abere, naiz egaztiak Baña gutxi dira ain eroak. Laster igarriko dioe adartxoetan dagoala fruta; ta oni ora-tu bear zaiola, adartxoa baztertuta. Azke-neronz dauden ipui itz neurtuko, edo ber-sodunak, ez dira nereak, ta bai nere osa-ba zerbait ezagunari artuak.

Aitu diot ondo dakian bati, ipui oek izango dirala guziz onak aztuerazotzeko

nekazarien etxeetatik ipui oker, ta zatar-
rrak, nola sagar ederrak, ta diru berdiñe-
an saltzen daudenean, baztertu ta saldu
ezinda gelditzen diran sagar miñ ta motelak.
Nork txori gerezi txatarrai begiratzen dioe
dauzkanean eskubatera gerezi anpollak?

Deritzat ez dala estutzeko kontua euska-
raren edertasuna, abere, ganadu, ta egazti-
en izenetan. Ez dira naski izen uts nola
naiko, ta naiaz beste gabe asmatuak erdal-
dunik geienen gisakoak. Goazen ekustera
zer esan nai duen izen bakoitzak, ixildu di-
tezen euskarari gaizki begiratzen dioenak,
ta erderatuko ditut.

Aiz-eria = Raposo = Aire pestífero o ma-
ligno.

Su-gea = Culebra = Sin fuego. o el frío.

Zein ederki esan zan: *Frigidus... latet an-
guis in herba.*

Muskerra = Lagarto = El esquivo de *musu
okerra.*

Otsoa, Oitsoa = Lobo = El de los altos. o
montañés.

Artza = Oso = El de mucha o gran garra.

Kata-motza = Tigre basto = Gato serio o res-
petable.

Zakurra = Perro grande = De fuerte ladrido.

Txakurra = Perro menor = Ladradorcillo.

Ez da orobat *zauka*, nola *txauka* egitea: le-
nengoa da, andiena; bigarrena, txikiena.
Zakurrak esan nai du *zaukorra*, ladrador,
o *zauka* urrean duena.

Basaurdea = Jabalí = Puerco montés.

Oi-loa = Gallina = Sueño en alto.

Oillarra = Gallo = El macho de las gallinas.

Katua = Gato = El de las cadenas, o hu-
meado.

Ardia = Oveja = Pastador de hierba.

Auntza = Cabra = Boca fétida. o malhechora.

Akerra = Cabrón = Boca torcida, o mala.

Erlea = Aveja = Poblador, o hacedor de pue-
blo, de *Erri-egillea*.

Erbia = Liebre = Doble cojera, de *erren-bi*.

Lukia = Raposo = El encavernado, o enterra-
do en cueva.

Mozoilloa = Mochuelo = Gallina seria, o mo-
cha: la voz *motza* es equívoca.

Ontza = Buho = Todo bueno, o que no daña.

Ep-erra = Perdiz = De hermoso corte, o tal
vez zarpa hermosa, de *erpe-ederra*.

Galeperra = Codorniz = Perdiz de los triga-
les.

Ollagorra = Becada = Gallina sorda.

- Mingorra* = Becacín = De lengua muda.
- Mirua* = Milano = Hila delgado... astuto.
- Gabilaia* = Gabilán = Vuela buscando, de ega-billa.
- Astoa* = Asno = De paso lento, de *asti doa*.
- Zaldia* = Caballo = El aficionado al grano, o el fuerte.
- Zamaria* = Cabalgadura = Cargador.
- Zezena* = Toro = El erguido.
- Beeia* = Baca = Cabiz bajo, o la abajada.
- Igela* = Rana = Nadador.
- Ugarasiua* = Rana = Nadador vocinglero.
- Erroia, Belia* = Cuervos = De lo alto y bajo. Bela mota bi dira, bata beti goietan dabilena inoiz sorobeetara jetsi gabe, ta bes-tea jatsi oi dana. Lenbizikoai deitzen zaiz-te *Erroiak*, bigarrenai *Beleak*. Ala dira ezagunak izenekin Bizkaian.
- Zapoa* = Sapo = El zambo, ancho, o aplastado. De aquí *zapaldu*.
- Zer geiago esan diteke, zorri, arkakusu, ta tximitxa zitalak ere hadituzte izen azaldariak?
- Zorria* = Piojo = Deuda, o tributo. Lo es de nuestra miserable naturaleza.
- Arkakutsua* = Pulga = Insecto ensuciador.

Tximitxa = Chinche = Pelliscador.

Ez ziran oek igarotzekoak ipuien liburuan.

Largatzen ditut azaldu gabe beste izen asko. Au berau gertatzen da belarretan. Nere osaba jaun, ta besteekin ere leiatu, edo dentatu naiz onelako izenazaldatze, edo erdera usaian, *ethimologietan*. Obe ez ote da, emakumea banaiz ere, igarotzea orduak onetan zer *janzi-berri* dan gora ta beera aitatzen baño? Jakiteak ez du eragozten birtute andi batera igotzeko. Santa Florentina, Santa Paula, Santa Brigida, ta beste Santa batzuek, emanak ziran liburuetara. Baziekien latin ez eze, geiago ere; ez, egiaz, egaatzeko arrotasunez, ta jakin nai utsez, ta bai bi-deak artzeko Jaungoikoagana. Arbezate bada euskaldunak, neskatxa gazte baten emaitza, edo presente au. Gauza onik badago, esan dezatela iñorena dala. ez nerea; okerrik badakuste egotzi nere gaffera; berdin arteak ez du emango sagarrik. Agur onenbesterekin.

I P U I I

OTSOA TA BILDOTSA

Otsoa ta bildotsa eldu ziran bakoitza bere aldetik ibai batera ura edateko asmoz. Otsoa asi zan edaten goiko aldetik, ta bildotsa uraz beetik.

Otsoak, ikusirik asi zala ura edaten, diotsa:

—Zergatik loitu didazu ura ni edaten nengoan artean?

Bildotsak erantzun zion pakez:

—Nola diozu ori, zure aldetik badator ibaiko ura ni nagoan beeko aldera?

Otso gaiztoak ez enzuna egifik bildotsaren arrazoi eder, ixilgarriari, esaten dio:

—Zergatik lotsa galtzen didazu? Zergatik niri gaizki esan? Ori da nagusiago bati bidegabe andia egitea.

Bildotsak diotsa:

—Eztizut nik lotsarik galdu, ez gaizkirik esan.

Orduan beekoki tximurtu ta begirada aseratu batekin esaten dio otsoak:

—Sei illabete dira zure gurasoak egin zidala beste orrenbeste.

—Nola izan diteke ori —diotsa bildotsak— geroago jaioa banaiz? Zeri ta zertara dator ori asmatzea?

—Dan bezela dala, zuk galdu didazu nere lartegia belarra janaz —esaten dio otsoak.

Bildotsak berriz:

—Nola ori ere, ortzak irten ez badidate? Nola jan belarra oi uts ta samurrekin?

Ez zedukanean otsoak zer eranzun arrazoi ain argiei, estalkiak kendurik, diotsa:

—Berritxu zitala, ez dakit zer esan; bai ordea aragi zalea naizela, zure aragia biguñ ta samurra dala ta zurearekin apaldu bear dedala.

Au esanda, arrapatu ta sabeleratu zuen.

Ipui onek esan nai du, gaizto asmatzallen artean egiak ez duela lekurik; indarrak bakarrik agintzen duela. Zenbat onelako otso? Asko dira biotz gogorrekoak: diru goseak darabiltza aitzakia ta esesio billa, edateko nekazari argalaren odol edo bearra. Onegatik.

Egia idukizazu gauza alpertzat

Gaizto asmodun ta asko jakifientzat.

ZAKURRA TA ARDIA

Zakur batek eskatu zion asmo gaiztoz ta gezurrez ardi gaixo bati ogi zati bat, esanaz berak lenago prestatu ziola. Ukatzen zion egiaz ardi indar gabeak, esaten ziola:

—Noiz ta non eman zinidan niri zuk ogi gauzarik?

Jaiki zan auzi gogor bat. Agertu ziran bata ta bestea agintari baten aurrera. Zakurrak esaten du:

—Nik ondo egingo det nere esana siniste osoa eman bear zaien jende prestu ta dakienekin igaro zana.

Agintariak dio:

—Ondo itzegin dezu, zakur erritarra.

Zuzendu zan au ixiltxorik billatzera testigu edo agiritzalletzat otsoa, arranoa ta mirua. Oekin, alkar aiturik, joan zan agintariaren aurrera, ta diotsa zakurrak:

—Ona emen aitzakia gabeko ta lotsa aundiko testiguak: oek dakite zer igaro dan. Esan dezatela.

Galdetu zion lenen otsoari egia zan edo ez zakurrak eman ziola ogia ardiari.

—Bai —erantzun zuen otsoak— neuk da-

kit eman ziola aurrez ta prestatzez, gero beste anbeste biurtzeko zorrez.

Arranoak esan zuen:

—Ala da, eta nola ukatu lezake ardi gezurtiak? Milla birao egingo ditut bear bada. Irentsi nazatela kata motzak ala ez bada.

Mirua irten zuen esanaz otsoak eta arranoak egia ziotela, ta berak zekusala bere begi argien aurrean prestatu ziola zakur prestuak ogia ardi zital ukatzen zuenari.

Ardi gaixoak zer egin? Nola arpegia agertu etsai bere aragi zaleen esanak gezurtatzeko? Txist bat egitera aizartu ez zan. Orduan agintariak eman zuen *autu* au:

“Zakurrak on egin duelako bere esana agertzalle edo testigu zuzen ta lotsa andikoekin, ta ardiak ezin duelako gezurra diotela agertu, nola ixil egotea dan bestetik airtortzea, agintzen da biurtu degiola ardiak zakurrari prestatu zion ogia; ezagutua izan dedilla zakurra egia zaletzat ta ardiak paga ditzala egin diran kostu guziak.”

Ez zedukan ardi gaixoak zuriko erre bat ere. Beldurrez ebaki erazo zuen bere illea neguaren erraia bazan ere; partildu zan artillea agintari, zakur, otso, arrano ta miruaren artean negu gogor bat otzez igaro bear zuela ardiak.

Ipui onek esan nai du gizon gaizto asko-
tako ta indartsuak billatzen dituztela beren
gisako lagunak, ta egin kalte asko, argal,
oben gabeko ta itz egiñaz gaizkiago irtengo
duteenetan: larga oi dituztela larru utsean
ta gorrian berak ederki jantzitzeko. Obe
dela auzirik artu gabe lenengotik eskatzen
diotena ematea, geroenean kostu guziekin
ematea baño. Ardiak eraman balu aurrera
auzia beste agintari nagusiago batengana.
etziran bere ille guziekin paketuko bere
etsaiak. Aragi zaleak izanik, eramango zu-
ten mamia bera, ille ta guzi. Ikasi bear da
ipui onekin ebakitzen auziak mugonez, be-
randuagora larga gabe. Obe da bear orduan
esku atz bat ebaki, gero eskutur guzia baño.

*Auzi zalea,
etxe ondartzallea.*

I P U I III

ZAKURRA TA ARAGI ZATIA

Zakur batek bere aoan aragi zati bat ze-
dukala, igaro nai izan zuen ibaia batetik
bestera. Igerian zijoala, ekusi zuen uretan
aoan zeraman okela zatiaren keriza, ta be-
gitandu zitzaion zala benetako aragia. Da-
mu ematen zion ez arrapatzea; ta azturik

aoan zeramanaz, murgildu edo mur eginik uretan, dendatu zan arrapatzera. Idiki zuen orretarako aoa; erori zitzaion aoan zedukau aragia; keriz utsari kolpe eginda, etzuen ezer atera ta galdu zuen berea. Abiatu zan amorruez esaten: "Zerk erabili nau geiagoren billa? Zori gaiztoan galdu det nerea.

Ipui onek esan nai du pakean gorde bear degula garbiro deguna. Galdu oi dala bide onez dagona, geiegi iduki naiz. Obe dala, esan oi dan bezela, etxatxori edo kurro bat eskuan, arrano egatua baño. Guzia billatzea dala guzia galtzea: bakoitzak eutsi bear dio-la bereari, ta larga iflorenari.

I P U I IV

LEOIA, BEIA, AUNTZA TA ARDIA

Esop. Fab. IV

Andi ta txikien arteko partilla ez da inoiz berdiña. Ala da esana, ta ala izana, erakasten digun bezela ipui eder onek.

Beia, auntza ta ardia alkartu ta lagundu ziran bein leoi batekin eizau arrapatzen zana alkarren artean partiltzeko. Basoan zebiltzala, arrapatu zuten basauntz bat. Geldi geldi dio leoyak:

—Naiz ni abere guzien buru ta nagusia: lauren bat zor zait alde onetatik. Bigarren laurena ere neuri dagokit, naizalako sendoena. Irugarrena ezin iñork kenduko dit zuek baño ariñako ebilli naizalako ta nigatik izan ez balitz, iges egingo zizuten basauntz onek. Laugarrenari ikutzen dionak, jakin bearko du, izango nauela ni bere etsaya—. Beldurrak ixildu zituen beste irurak, ta ikasi zuten urrengorako ez laguntzea, ez burua bat egitea leoi sendo ta arroarekin.

Ipui onek erakasten dioe gizon argal, me ta nekazariei, ez burua bat egitea beren artu emanetan berak baño andiagoeekin, oek badira arroak, askojakin ta okerrak. Nekea izango da argalentzat; irabazia sendo dirudunentzat. Oek gizenduko dira nekazaria argaltzen dan denporan.

Laguntzat arzazu berdiña;

Andiagoa izango da kaltegiña.

Nai badezu igo goregi

Jetxi bearko dezu beregi.

OTSOA TA KURULLOA

Zegoan bein, sarri bezela, otsoa aragia jaten, ta katigatu zitzaion ezurra eztarrian Ito ezinik zegoala ikusi zuen zorionez kurulloa.

—Atoz ona —diotsa otsoak— lagun zakizkit arren. Zuk dezu moko luzea; igaroko dezu moko nere eztarriraño, ta ala aterako didazu katigatu zatan ezurra. Ori egiten badidazu, ez naiz inoiz aztuko; izango naitzatzu eskertsu ta ongiña; ezagutuko det zuri zorko dizudala nere bizitza; izango gera adiskide biok, ta nere bearrean jartzen bazera, lagunduko dizut beti, baita eman ere bear sari edo aloger ona.

Sinistu zituen kurulloak otsoaren eskin-tzak, nora ezean edo ezin bestez egin ziozkanak. Zabaldu zuan otsoak aoa; sartu zion kurulloak bere moko ezarriraño ta atera zion ezurra. Onenbesterekiñ gelditu zan otsoa gaitz gabe ta osasun onean. Kurulloak esaten dio:

—Eman egidazu nere bear-sari edo agindu didazun alogera.

Otsoak ekusi zuenean burua sendaturik ta irriskutik irtenda, erantzuten dio:

—Etzera lotsa niri alogera eskatzeaz? Zure bizitza egon da nere ortzetan; oek estutu banitu nik, zure lepo luzea nere aoan zegoenean, zer egingo zan zuzaz? Eskerrak eman zaizkidatzu nere on egiñagatik. Nai izan banu, nere sabelean egongo zifian orain, ta zaude bizirik nere onegitasunez, ta urrengoan gorde ezazu burua onelako irris-kutik.

Onenbesterekin ixildu zuen kurulloa otso eskergabeak. Au da eman zion bear-saria.

*Gaiztoak eztakite egiten onik,
Ematen ere ez ifiori eskerrik.*

I P U I VI

GIZONA TA SUGEA

Neguairen errañan otz gogorren artean, izozturik zeudela bazterrak. gizon errukior ta biotz biguñeko batek artu zuen etxean sugea; palagatzen zuen alegiñez; ematen zion eznea, ta sukaldeko zokondoan berotu zidin. Eldu zan uda berria, ta nola ondo bizi az gizendu zan zugea, azi zitzaion mistoa edo benenoa ta jaiki zan usikitzeko gizon bere ongilleari. Aserratu zitzaion oni: artu zuen makilla bat, ta diotsa:

—Ortikan emendik. Zoaz nere etxetik urruti, esker gaiztoko ori. Zer? Nik errukirik andienarekin eman, negua ondo igarotzeko, toki ezin ohea; jangarrizat eznea, berotegizat sukalde bazterra, ta gizen gizen eginda, premia igarota, gaitz egin neri? Ilko zaitut bertan bereala irteten ez badezu nere etxetik.

Bai herriz. Ixiltxorik irten bearrean gaizki egin naiez damututa, jasotzen du burua, ateratzen du eztena, ta sartu nai zion bere ongillari.

*Gaiztoari egiten zaion mesedea,
Egillearentzat da kaltea.*

Ez du onek esan nai kristauak gaizki egingo duela on egiñaz bere etsai lurrekoari. Jesukristok agintzen digu erantzuteko guk on egiñekin, gaizki nai edo egin digutenai: eskatzeko Aita zerukoari berakgatik; maite izateko biotzez, izan gaitezen bere umeak. ekusirik nola erorten diran euri lurraren ongarriak gaiztoen ta onen soroetara. Anziñako esana da: *egin ondo edozeñi, begiratu gabe nori*. Ipuiak bakarrik esan nai du, nolakoak diran gaizto asko, zein esker galdukoak, nola ezagutzarik ez duten egiten zaizten mesedeak gatik.

ETXEKO ETA KANPOKO SAGUAK

Erri-etxe eder baten bizi zan saguak irten zuen bein kanpora, jakin nairik zer igarotzen zan zelai ta basoetan. Aurkitu zuen beste sagu bat inoiz errian sartu gabea, ta basoan beti azia. Ondo egonak alkarri emanik, diotsa kanpokuak:

—Nere lagun berria: atoz nerekin nere etxe edo bizilekura.

Eskerrak emanik erri-saguak, jarraitu zion basotarrari. Ipiñi zion onek bazkari basogisakoa. Agertu ziran maira aritz-aleak, intxaurrak, urrak, mispillak, txermenak, aranak, sagarrak, ta zer ez?

—Adiskidea —esaten dio erriko saguak— janari ugari dezu, baña guzia otza ta sabela indartzen ez duena. Atoz orain nerekin erri barruko etxe aberats edo jauregi eder batera, non bizi naizan nere era guzietara, ta emango dizkitzut janari gozatsuagoak, koipe ta ezti, urdai ta gaztaña, likainka, zezina, gozoak... ta zer ez? Andiki bat naiz zure aldean.

Berriketai sinistea emanda, joan zan baso-sagua errikoarekin. Sartu ziran etxe aundi baten. Etxekoak darama dispensa edo jan-

tokira, ta erakusten diozka an agindu ziozkanak. Bizarrak koipetu ta musuak eztiturik zebiltzala jaten, orra non onik onenean sartzen zaien katu lodi ta arre bat. Etxeko saguak artu zuen igesa, gorde zuen burua zulo ezagutueta. Basotarra ikaraturik zegoan, zer egin etzekiela; artzen du iges-bidea, jarraitzen dio katuak, ikutzen dio zerbait atzaparrakin, baña zorionez etzuen arrapatu. Irten zuenean katuak, biurtu zan etxekoa basokoaren billa, ta arkitu zuen odola zeriola lepotik, ta beldurrez erdi illik. Esaten dio etxekoak:

—Nola nik bezela iges egin ez dezu katua-
ren keriza ekusi orduko? Kontu bada urren-
gorako. Abiatzen dira berriz jaaten; ta onik
onenean enzuten da ate giltzen otsa: iges
egin zuen laster etxekoak; basokoa zegoan
eltze edo lapiko koipea zeukan baten. Ai-
zartu eziñik irtetzen, egon zan au baztertu-
rik. Giltzera neskatxa ebilli zan batetik ta
bestera gauzeen billa, ta zorionez etzan el-
du basokoa zegoan onzira ta irten zuen.
Biurtu zan etxekoa jantokira ta esaten dio
basotarrari:

—Ez nizun nik esan irtetzeko ta iges egi-
teko bereala? Ni naiz soldau zar urteak iga-
ro dituana onelako irriskueta.

—Adiskidea —diotsa basotarrak— zure-

tzat janari gozoak, aberats ta andi etxeoak
Ai, nere mendi laztana ! Zenbait zeran
obea! Eztezu an katurik, ez giltzera andrarik
Jaten det nere basoan ezeren beldur gabe
Zaude, zaude zu emen bizkarrak koipetzen,
beti auzitan bezela katu ta etxeoakin. Agur:
banoa ni nere basora.

Ipui onak, zenbat gauza on erakasten ote
digu? Bakoitza paketu bear da dui-duiaz ta
duenaz. Igo nai duenak andi gauzen billa
edo leku goratura, buruko zorabio bat da
asko bea jo ta bizitza galtzeko. Beldur ta
kezka gabeko bizitza paketsua obea da be-
tiko irrisku ta ikaran egotea baño. Ez da
ifioiz zorioneko aberats ta asko duena, pake
ta atsekaberik ezak iges egin badio. Nekaza-
ri basotarraren sabela beteago dago arto,
kastaña, sagar ta tupin azadunekin, andiki
bat eper, ollagor ta ollanda samurrekin
baño; onek osasunik edo pakerik ez du, ta
ark bai.

*Obea da gitxi iduki, ta pakea;
Ondasun askok dakar ikarea.*

ARRANOA TA AIZERIA

Arranoak arrapatu ziozkan bein aizeriari lurzillo edo leiza baten zeuzkan umeak. Eku-sirik aizeri asko jakiñak egin ezingo ziola gaitzik arranoari, jarraitu zion negarrez, ta diotsa palaguz:

—Egazti beste guzien errege zerana, errukitu zaite nizaz; biur bear dizkidatsu nere umeak. Zertarako guraso bati emango diozu onelako atsekabea?

Eranzun zion arranoak:

—Ago ixillik, lapur zital ori. Zenbat al-ditan arrapatu diozkak ollo lokatuari bere txitotxoak bigundu gabe gurasoaren negarrekin? Iñork ekusi ezin au kirastu gaizto ori.

Ala arranoak eraman zituen aizerikumeak bere abira, jaten emateko arranokumeai. Aizeri askotakoak asmatu zuen su ematea arranoaren umeak zeuden arbolari. Ekarri zituen lastoa, lar igarra ta sua. Iriziki zitue-nean erregarriak, igoten zuen keak gora, jai-ki zan garra. Ekusirik arranoak erre bear zutela bere umeak abia ta guzi, esaten dio:

—Aizeri oker ta asmaria; garaitu nauzu zere asko jakiñarekin; itzeli egizu sua, ta emango dizkitzut zere umeak.

Ala biurtu ziozkan kalte gabe, erakasten zuela geiago balio duela sarri asko jakin ta aizartu izateak, indartsu ta sendoa izateak baño.

Daudenak toki goietan

Eror ditezke beera:

Arrotu bear ez gera

Zori ordu onetan.

I P U I IX

BELEA TA AIZERIA

Itz labañetan gelditzen diranak, lotsatuak irtengo dute. Ona zer dion ipuiak:

Bele batek ostu zuen bein leyo batetik gaztaia ta eraman zuen arbola gañera. Bazekusen aizeriak, ta adurra zerion ezpañetatik gaztaia jan naiaz. Zerbait ateratzeko asmoz esaten dio arbolapetik:

—O egazti ederra; ez dago zure berdiñik egodunen artean. Zure beltztasunak argi egiten du. Zenbat eta zarrago, anbat eta ederrago. Eta nor zu baño egiñagorik korputz itxuran? Baziña beste txori soñulariak bezelakoa, kantatuko bazendu birigarro batek beste, guziak garaituko zinituke.

Arroturik bele eroa aizeri askotako aren,

erausi labañekin, erakusteko bazekiala berak ere birigarroak adiña soñua jotzen, idiki zuen mokoa kantatzeko asmoz. Orra non erori zitzaion lurrera, arrapatu ta arbolartu zuen gaztaia. Ozta jo zuen onek lurra, non arrapatu zuen etorkizunaren zai zegoan aizeriak, ta iges egin zion bere leizara. Jarraitu zion beleak eskatzen ziola bere gaztaia. Aizeriak oñak arinka zijoala eranzun zion:

—Ez da astoentzat ezta; ez dek tontoentzat ere gaztaia.

Ipui onek adierazi nai du, ez zaiela enzuterik eman bear itz labañ ta astingarriai; gezurra darabiltela ezpañetan. gauden bañogoratuago ipiñi nai gaituztenak itz ederrakin. Goitasun ta alabanza zaleak damu izango dutela azkenean sinistea emanaz asko-jakifien berriketai, bada

Itz labañetan ez eztitu

Buruak goregi ez igitu.

I P U I X

LEOIA, BASAURDEA, ZEZENA TA ASTOA

Arkitzen zan leoi jauna zaarrez gafetik gaxoa, argala ta aginte gabe. Urreratu zi-

tzaion basaurdea, ta diotsa asarrez ta gaitz naiz:

—Adiskidea, etzait aztu nola beti iges ebili oi nintzan gaztia zifianean: esturasun gogorretan ipini ninduzun ez gutxitan, ta go-goan daukat nolako zauria egin zinidan, ta ofiak ariñagoak izan ezpanitu aldapetan, zure sabelean egona izango nintzan.

Au esanda, ekin zion ortz gogorrekin leoi argalari, ta larga zuen mankatuagoa.

Eldu zitzaion geroago zezena ta onek ere egin ziozkan epai edo zauri andiak bere adarrekin.

Agertzen da asto bat, ta jo zuen atzeko ofekin bekokian ta egotzi zuen lurrera. Eritu ta ill ezinik odola alde guzietatik zerio-la, dio leoiak negarrez:

—Ene zorigabea! Nere indar ta osasunaren jabe ninzanean, urte gutxiago nituenean, abere ta lau ofieko guziak begiraten zidaten lotsaz ta beldurrez, nere aurrean egon oi ziraden buruz bera ikaraz. Nor aizartu nere arpegira begiratzera? Nere izenak sartzen zuen izua baso guzietan. Nere eskuan zegoala txit sarri arrapatu ta irenstea, izanik ni biotz biguñekoa ta errukiorra, largatzen nioen pakean orain banatu nautenai. Ez nuen inor iltzen nere gogoz ta gaiztakeriz.

ta bai bakarrik bear-bear nuena gosea kendu ta bizi izateko. Bein baño geiagotan gorde nioen bizitza ez gutxiri, beste gogorra-goai eragotzirik gaitz egitea. Orain herriz, nakusenean adore ta aginte gabe ezertako ez naizala, dirudi guziak alkartzen diradela ni banatu ta eriotza gogorrera eramateko, nere izen enzute andikoa galdurik gelditzen dala; bada esango da: "asto txar batek egotzi zuen lurrera ta garaitu leoi arrotzarra."

Ipui onek erakasten dioe eskuarte andiko gizonai, begira degiotela etorkizunai, ta nola izan bear duten errukitzu ta biotz biguñekoak, iñori gaitzik egin gabe. Beldurra ta izua sartuaz ez dala adiskiderik egiten, ta bai amorioz artuaz mendeko ta beragokoak; ez dagoala lurrean oin lokatu gabeko toki-rik; gora bera asko ikusten dirala; bada

Egin aurrez adiskideak

Premia orduetarako;

Ez da ez ezer aterako

Arturik beldur-bideak.

ASTOA TA TXAKURTXOA

Etxeko jaun batek zeuzkan astoa ta txakurtxoa. Ekusten zuen astoak etxeko-jaunak txakurtxoari egiten ziozkan palagu ta ille igortziak, ta nola alzoan arturik ematen ere ziozkan ogi biguñ ta okela zatitxoak ta berretzat etzegoala baizikan lasto gogor, ta noiz edo berriz esku bete arto ale.

—Au zer da? —dio abere buru andikoak—. Txakur txar ezertako eztanak, bearririk egiten eztuanak, anbeste asko nai edo estimazio etxeko-jaunagandik; ni berriz bazartu ta kortaturik bearrean mankatuba jan gutxirekin?

Dakus, nola txakurtxoak egiten dioskan pozkariak etxeko-jaunaren bularrean aurreko oñak ipinirik; nola zauka eginda igoten zion beste batzuetan belaun gañera ta miazkatzen ziozkala eskuak ta arpegia. Dio beregan:

—Obeto artuko naute ni ere alako pozkaria batzuek egiten badiozkat.

Asmatu ta egin. Ekusi zueneko etxeko-nagusia era onean artarako, arrantza batzuek eginda igoten dio aurreko oñekin bularrera, ta mingañ zatarrarekin igortzi nai

zion arpegia. Asto zarraren pisuz jo zuen bea etxeko-jaunak; asi zan au deadarrez morroiai. Ekusi zutenean nagusia lurrean etzinda ta astoaren ostikopean, banatu zuten ma-killaka buru andikoa ta larga zuten erdi illik.

Ipui onek esan nai du, ez dala inoiz sartu bear bakoitzari ez dagokion lanean. Iratzarriak, esnatuak ta asko jakiñak ez diranak, emango dutela atsekabe atsegiñaren ordean.

*Egon bidi bakoitza bere tokian
Izan ez dagian naieza sari ordean.*

I P U I XII

LEOIA TA SAGUA

Leoia lotan zegoala mendi baten erriberran, urreratu zitzaizkion sagu asko ta oen arteko aizartuenak igo zion bizkarrera. Ezagutu zuenean saguak nor zan ta nolako arriskuan zegoan, eskatu zion barkazioa ta ez zegiola arren gaitzik egin; ez ziola bizkarrera igo gaizki naiz. Bazekian leoiak, ez zuela ezer ezer aterako piztia alako bati gaitzegiñaz, gaizki esango zala bazter guzietan bere atzapar portitzak eramaten bazi-

tuen sagu bat apurtzeko. Larga zion bada joaten nai zuen lekura. Saguak diotsa:

—Leoi prestua: esker andiak ematen dizkitzut gaiz gabe bialtzen nazulako, ta emen, ta non nai, egongo naiz zuri on egiteko ezertan al badet.

Egun batzuen ondoren erori zan leoia pres-tatu zioen lakio baten. Ekusi zuenean bere burua katigu, ta urratu ezin zituela loturik zeuzkaten sokatzarrak, asi zan orroa izugarriak ateratzen. Enzun zituen orroa andiak aitatu degun sagutxoak, ezagutu zuen norenak ziran ta esturasun gogorren batean zeguala berari on egin zion leoia. Urreratu zitzaion ekusteko zer zan; dakus gategu, ta diotsa:

—Nere ongille prestua, ez larritu; neu naiz asko zu ateratzeko irrisku orretatik. Ez dadukat aztuta zer zor dizudan, nolako itza eman nizun.

Sagutxoak igo zuen soka edo gatigu zedukaten lokarri sendoetara. Gutxika gutxika urratu zituen ortzekin. Irtten zuen leoiak kalte gabe, eta esaten dio:

—Zorioneko ordua, zeñean enzun nituen zure eskariak, ta larga nizun joaten gaitzik egin gabe. Zein prestu ta itz onekua zeran txikia izanda ere!

Ipui onek esan nai du txikitxoan bear iza-
tera etorri ditezkeala gizonik andienak ta
gaitzik egin ezin dezaketen askok on egia
dezaketela. Erakasten ere du, eskertsu iza-
ten ta ez aztutzen artu diran mesedeak.

*Dionak: "ez det iñoren bearrik",
Burua daduka galdurik.*

I P U I XIII

ONTZA TA BERE AMA

Gaixorik zegoan baten ontza, ta sendaga-
rririk ez zegoala beretzat lurrean, erregutu
zion bere amari egiteko Santuai eskintza,
edo promesak bere osasunagatik. Amak
eranzun zion:

—Nere umea, egingo det eskatzen dida
zuna; baña heldur naiz, enzungo ez naute-
la Santuak. Oroi zaite, zenbat lapurreta egin
ditugun zuk, eta nik eleiza barruetan; nola
loitu ditugun aldare, edo elizmaiak.

Ipui onek esan nai du, gaitz andiak egin
dituztenen noraezeko, ezin bestezko, ta es-
turasunak eraginiko eskintza, ta eskariak,
alperrak dirala, leenago garbitzen ez bada
biotza. Santuak bere alde, edo bando iduki
nai dituenak, mugonez, edo leenaz irabazi

bear dituela; osasun egunetan atsegin eman
bear dioela, estura ordu ta gaixotasunean
ongilletzat iduki nai dituenak.

Santuei ondo esan

Ta leenaz beren adiskide izan.

I P U I XIV

ENADEA TA BESTE TXORIAK

Enadea ta txoritegi mota askotako bat zeuden begira nekazari batzuei lino azia ereiten zeudela soroetan. Diotsa enadeak:

—Nere lagunak: ez bide dakizute zertan ari diraden erella oek; bada, zaude beldur gabe. Ereingo dute lino-azia lurra atxurtu ta zimaurturik. Lino-belarra azi ta igartu didinean, gabikotu, txarrantxatu, ezpatatu, apaindu, gorutu ta arituta, egingo dituzte gu arrapatzeko sareak. Mugonez oroitu bear gerade; berandu dator sendagarria, gaitzak indarrak artzen baditu. Arzazute nere gordebidea. Goazen guziok bat batean sorotara; azia lurrera bota ta atxurlari oek alde egiten dutenean jango degu ezarri duten azia, jaioko ez da lino-belarrik, egingo ere ezin dute sarerik. Ala gordeko ditugu geren

buruok. Zenbat txori erori ote dira sareetan?

Beste txori bildu ziranak farra egiten zioten galanki, ta esaten dioe:

—Enada gauza ez, beldurti, ikarakor ta biotz gabea: etorkizun urrutiko ta bear bada inoiz izango ez diranak, emango dizute ainbeste larritasun? Ondo buru-zalea zera. Egizu nai dezuna; berdin ez diogu guk geren buruai orrelako lorrik eman nai.

—Ez? —diotsa enadeak—, gogoango dezute noiz edo noiz. Or konpon. Ezin nik bakarrik jan nezake erein duten azia: iges egingo det soro ta landetatik etxeetara. Egingo ditut abe arteetan nere abiak, aziko ditut umeak, erakatsiko dioet non bizi.

Urrengo urtean zebillela enadea ibai batean goitik beera ta beetik gora egaka ekusi zituen alboko soroetan txori asko sareetan sarturik indarka irten nai ta irten ezinda. Txori oen artekoak ziran ormatxori edo kurroiak, pintxoe, txirriskilla, amillots, txepetx, birigarro, zozo, bulargorri ta eskillasotzarrak. Ekusi ziradenean ala katigu, ta an zebillela enadea katea gabe, esaten zuten negarrez:

—Ai sinistu bagiño enadeari! Igarri zion zer gerta zitekean. Egin bagenu orren esa-

na, ez gifiaden ekusiko gaur esturasun onetan. Galduak gera bada, leenaz gorde bideak artu ez ginituelako.

Ipui onek esan nai digu ez degula izan bear buruiritxikoak, artu bear dirala jakintsuen zuzenbide edo konseju onak; ezpaere gogoango degula noiz edo noiz ta egingo degula negar katea ta sare txarrak urratu ezin ditugunean.

*Izan bada aurrez begiratu
Etorri ez didin gero damua.*

I P U I XV

LAPURRA TA ETXE-ZAKURRA

Lapur bat zebillen gabaz gauza asko ostutzen, ta eldu zan aberats baten etxera. Irten zion atarira zakur ora andi ta etxe zai egoten zanak, ta diotsa:

—Zer dakartzu ona kaltegin gaizto orrek?

—Ago ixillik; to ogi zati bat ta ez egik zaukarik, ez usiki ere niri.

Diotsa zakurrak:

—Ematen didazu ogi au ondo naiz edo zure estalgilla izan nadin?

Erantzuten dio lapurrak:

—Ematen dizut ixil-sitzat, zuk salatu gabe sartu nadin etxean, ta eramateko zuk bear ez dituzun diru ta beste gauzak.

Baña diotsa zakurrak:

—Nork emango dit niri bizi naizan arteko ogia iltzen badidazu nere jabea edo eramaten badiozkatzu dauzkan diru ta beste ondasunak? Nai zenuke oraingo ogi puska batetik galdu dezadan bizitza guziko ogia? Emango ziniket zuk gero bear dedana? Ez dezu errukirik gizonentzat. biotz gogoraren jabea zera oentzat ta izango zera biguñago neretzat? Ez diot nik ogia ematen didanari dollorkeria ta ixil-saltzeerik egin nai. eta bai gorde bera ta etxeko gauzak. Ala bada, zoaz laster etorri zeran bideetatik, nai ezbadezu nik emen nere ortzekin zu apurtzea. Ez da nere eztarritik lapur ogirik igaroko.

Ipui onek adierazo nai du, ez dala inoiz lapurren estalgille izan bear. Morroi ta mirabeak gorde bear dituztela kontuz etxeko gauzak, ta ez etxe-lapur izan, ez etxe-lapurrei lagundu. Ogia ematen duenai zor zaiola leialtadea ta bearra egitea.

*Erakasten digu txakurrak
Ez estaltzea lapurrak.*

EIZA-TXAKURRA TA BERE JABEA

Eizari batek zeukan erbi-txakur, gaztea izan zan artean lagundu ziona guziz ondo bere eizan. Zaartu, astundu ta ortzgabetu zan txakur gaixoa. Guziaz ere arrapatu zuen erbi bat, au lotan zegoala. Baña nola ortzak erori zitzaizkon, eginalak eginda ere ezin iduki izan zuen erbia, ta indarka zebiltzala iges egin zion. Bere jabe eizariari aserratu zitzaion agitz, ta agiraka gogorrez diotsa:

—Txakur zarra, zertako zaitut nik nere etxean ogia alperrik jateko baizik? Ez zera ezertako gauza.

Esaten da, erantzun ziola ederki txakur gaixoak:

—Jauna, urte askoak zartu naute, ta dakusan bezela, ez zait ortzik ere gelditu. Noiz-bait, nere urte loratuetan bear egin nion: nere bidez ill zituen erbi asko. Orduan esan oi zuen arro-arrorik, ez zedukala ifiork bedorrek bezelako erbi-txakurrik. Diru askogatik ere ez ninduen salduko. Berriz orain zapaltzen nau agirika: ematen didan ogia da damuz, ta borondate gaiztoz poztuko litzake illik banengo. Zer egin dezaket bada zartu banaiz? Nola nik urteak atzeratu, ta

indar berriak artu? Oroi bide nere gazteta-
suneko egikariakin; errukitu bide nere ezi-
na gatik; obe nuke len bezelako oñak ta or-
tzak banitu, bada biotza lengoa det.

Ipui onek erakasten du argiro, gazte egu-
netan beargiña izandanari, ez zaiola eraku-
tsi bear mukertasunik, gerora zartzan egon
baño besterik ezin duenean. Etxeko buruak
artu bear dituztela ondo ta errukiz morroi
ta mirabe zaartu artean beargiñak izan dira-
nak, ez bota kanpora aterik ate ogia billa-
tzera. Eta arrazoi geiagorekin umeak bear
diotela lotsea gorde, amorioz itz egin, ar-
pegi ona erakutsi, ta laztantasunez begiratu
guraso zaar bearrik ezin dutenai.

*Zaar nekatuei ondo begiratu;
Bear egiñak ondo saristatu.*

I P U I XVII

ERBIAK ETA ICELAK

Egin zuten bein erbiak heren artean ba-
tzar edo bilkuia, ta igaro zituzten itz oek:

—Zer da guri gertatzen zaiguna? Egun oñ
bat ez daukagu; beti bizi gera kezka gogo-
rrean etsaiz inguraturik. Txakur ta gizonak
gure billa dabilta ala basoetan nola soro ta

ibarretan. Gorde naiagatik buruak otatza, gisasti ta tokirik ezkutuenetan, arkitzen gaituzte txakurrak oñatzetatik. Jesten bagera geritzetara, ezin jan degu ezer beldur gabe. Gaberako ere baditugu baso-txakurrak, aizeriak, ta oek dira eizaririk gaiztoenak. Zenbat gure lagun erori dira txakur ta aizerien ortzetan? Zenbat beingoan iltzen dituzte gizonak erremienta sugiñekin? Au ez da bizi izatea, baizikan beti ikaraz eriotzaren atzaparretan ibiltzea. Obe ditugu bota geren buruak ibai batera, ito uretan ta kendu betiko larritasunak.

Erabagi zuten ala egitea, ta joan ziran ibai hateko egi edo ondora. Dakuste uste gabe, nola an arkitzen zan igeltegi bat, guzia ikaraturik, banatu ta bota zituzten beren buruak uretara. Orduan esan zioten beste lagunei erbi batek:

—Ez gera bakarrik gu beldurrean bizi geranak. Badira bai gu baño ere beldurtiagoak. Ona nola gu ekusi ta beste gabe iges egin ta bota dituzten buruak ibaira igel txarrrak. Ez degu ernegatu bear: etorriko aldira egun paketsuagoak guretzat: gaitzak dituzte beren mugak ta aldiak. Goazen bada lengo lekuetara ta bizi gaitean nola al egun obeagoen zai. Ala egin zuten.

Ipui onek argitzen ditu gizon ta andre er-

negari, irritu ta pake gutxikoak, ta beren buru ta bizitzako atsekabeai gaitziritzirik eriotza billa dabiltzanak. Ez dira egun guziak berdiñak; gaur leku beetuan dagoana, egon diteke egun gutxiren barruan, goraturik; ta negu gogorak ekarri oi du udaberri ederra. Jarri gaitean Jaungoikoaren eskuetan.

*Aurpegi eman bear diogu gaitzari,
Begiratuta etorriko dan onari.*

I P U I XVIII

OTSOA TA IRUDIA

Zebilela otsoa basoan arkitu zuen irudi, itxura uts edo imajifia bat. Artu ta egon zan goi ta be begira, ta dioe esan zuela:

—O zein ederra zeran! Bafia ez dezu zenzu. ez garufik!

Ipui onek lotsatu bear ditu edertasun utsean biotza ipinirik daukatenak. Eder adingabeko ta argi laburrekoa, da zenzunik ez duen irudi uts baten gisakoa.

*Edertasuna da egun laburrekoa;
Jakituria bizitza guzirakoa.*

EULIA TA MANDOA

Mando batek zeramala burdia jarri zitzaion burtolean euli gogaitgarria, ta diotsa:

—Mando zatar ta astuna, abill arifago. bestela nere eztenarekin odoldu ta pizkorko aut.

Aserratu zitzaion mandoari euli zital batek ain arro itzegin bearras. Eranzun zion bada:

—O piztia zital, kiratsu, ta gogaitgarria! Ezin gaitzik egingo diat: ala ere ez zidak ardura andirik ematen ire ezten txarrak ateratzen bazidak odol apur bat. Nere ganean dijoan mandazai onen zigorrak beldurrago egiten naitziak. Onen zigorrada ta ugal orapillotuak ematen diztan zartadak atera oi dizkite zembro aundiak. Au bai dala beldurgarria.

Ipuiak erakasten dioe andikiai, badutela zer beldur izan nondik edo andik.

*Txikiak dira noizbait arrotzen,
Ta andiak dute ernegatzen.*

EULIA TA TXINDURRIA

Euliak ta txindurriak zerabilten auzi gogor bat, nor ote zan ederrago. Euliak bere alde edo bandorako zioan:

—Zuk, txindurri itxusia, ezin burua nerekin berdindu dezakezu. Non nai ta noiz nai, gauza guzietan aurreratzen naitzatzu. Ardi edo idi bat iltzen badute, neu naiz lenengo jaten diodana nai dedana. Nabill erregen buru ta maietan. Lo egiteko dauzkat aukera osoan oerik biguñenak. Nai dedanean eguraldi otzetan, noa sukaldera ta an bertzen naiz. Eguzkitara irten nai badet, nork eragotzi? Ni nabill edo lurrean oñez, edo aidean egan, nai dedan bezela. Zu berriz beti arrastaka.

—A izurri zitala! —diotsa txindurriak—. Zer da ansi zu egotea oe biguñetan, berdin iñork ekusi nai ezbazaitu? hazera guzientzat gogaitgarria? Eguraldi biguñakin bazabiltza bai egan; zerbait badirudizu bero aldietan. Negua datorrenean kikiltzen zera, ez zoaz maiko ogi apurrak biltzera: ezkututzen zera toki illunetan, ta iñork ez du zure herririk, ez daki bizi zeran edo ez; ezin arpegirik eman diozu elur apur bati; ta au

da zorionekoa izatea? Ni bizi naiz udan atsegin osoan, ta non nai det zer jan. Negurako prestatzen naiz bear egiaz, nere bizkarrean daramadala ogi zorroa, edo gari ale neu baño astunagoa, ez zu bezela alperreiari emanda negu guzian barau egiten, zer jan ez dezula zeure bakartadean. Otzik andienetan, elurrak lur guzia estalduagatik, daukat nere etxea lurraren azpian bere gari gelarekin. Aizeri, erbi, zozo, birigarro, ta anbeste egazti goseak argaldurik otzak igarorik dabilzanean, ni ez naiz ez otzaren ez gozearen beldur. Gizon guziak naukate bear gintzat, ta esan oi dute ikasi bear dala txindurrietatik beargiñ ta kontuzkoa izaten, ta prestatu bear dala zer jan bearrik ezin dan egunetarako.

Ipui onek erakasten digu ez buru zalegiak izaten, ez arrotzen gere gauzekin. Esana ta anziñakoa da, bakoitza bizi duela bere zoroak.

Bakoitzak bere burua goratzea

Da bere burua ondo ez ezagutzea.

OTSOA, AIZERIA TA TXIMUA

Auzi bat jaikizan otso ta aizeriaren artean. Otsoak egozten zion, arrapatu ziola berak jateko zeukan bildotsa. Aizeriak ukatzen zuen. Nork erabaki zuzen errierta, edo ez da bai da au? Billatu zuten orretarako tximua; enzun zituen onek bataren ta bestearen esan ta agiriak. Ez zekarten testigu edo ekuslarik. Eseri zan bada tximua aulkian, ta eman zuen epai edo sententzia au:

—Biok zerate lapur ezagunak, ta iñork ez daki nor dan gezurti ta gaiztoena. Ez du otsoak ekarri bere esanafen agiri edo probanzirik; bere esan utsa ez da asko sinistua izateko, ta lege zuzenetan ez zaio sinisterik ematen lapur jakiñari. Bestetik aizeriak ukatuko zuen ostu balu ere. Ala, zaudete pakean, ta onenbesterekin bukatu bidi auzi au, bada biok gelditzen zerate burua garbitu gabe, ta zaio gaiztoan.

Ipui onek dio, gezurti ta lapurrak ez dutela izan bear sinistuak. Gaiztagintza ta okerkizunetan artua, dala gaiztagiñ ta okertzat ezagutua. Gizon egia zale ta bestetik

zuzenak guzia daukatela eginda sinistuak izateko.

*Gizon gaiztua ta lapurra
Guzi guzia gezurra.*

I P U I XXII

GIZONA TA OGI-GAZTAIA

Ogi-gaztaiak egiten ziozkan gizon bati kalte aundiak etxean sartuta, itoaz ollo ta usoak, ta janaz arrautzak. Ipiñi zion lakio edo gatigugarri bat ta erori zan bertan. Arkitu zuen gizonak atsegiñ osoz oñetik katigatua, ta diotsa:

—O kaltegin zitala! Erori aiz geroenean. Aspaldiko egunetan ondo bizi izan aiz nere ollo ta usoakin.

Eranzun zion buruz bera edo umilki ogi-gaztaiak:

—Nere jauna, ori egia da, baña oroi bidi naizala saguzale ta arrapatzallea; garbitu diodala etxea piztia zital oetatik. Ni nabillen lekuan ez da katu bearrik. Zenbat onta mesede izan du nik itoaz anbeste sagu ta arratoi andi? Aurreratu ditu gutxienez anega bi gari, lau anega artoale, arroa erdi ur-

dai, aitatu gabe sagar, kastaña, gaztae ta go zotan arrapatu ta irentzi oi dituztenak. Kontuak alkartzen baditugu gaitz baño mesede geiago egin diot. Ez nagi hada banatu, ez arren ill. Ematen diot itza, ez diodala geiago arrapatuko ollo, ez uso, ez arrautzarik, ta geldituko naizala berorren etxean gatu orde, ezer kostagabe.

Eranzun zion gizonak:

—Ederki itz egiten dek; letradu bearrik ez dek, baña baziakiat ez aizala ebilli nere onagaitik saguak arrapatzen, ta bai ere sabelaren asko naiz. Zertarako ziatubat borondate on gabeko on artuak? Nork sinistu ire itz labañ ta berriketai? Estuak erasoten dizkik; laster aztuko zaizkik, olla tokian burua bakarrik ekusten badek. Ala, ill bear dek, bestela betiko beldurrean biziko dituk nere ollo ta uso gelditu diranak.

Ipui ederra gaiztagiñai sinistea ez emateko. Estuak edozer erasotzen du. Borondatea ona ez badago, biotz kaltetua duena laster biurtuko da edozein gaizki egitera. Etxeetan azi oi diran aizeriak ez diote ortzik egozten olloai etxekoen aurrean, baña ezkutuan bai.

*Kaltegiñak beti kaltea
Gaiztoa bada borondatea.*

IGELA ETA IDIA

Igelak ekusi zuen bein idi bat guzia loditu ta gizen eginda, zebillela zelaiko larrean, ta begitandu zitzaion bera ere azi ta gizendu zitekeala idi ura bezela bere azal ta larru zimurra betetzen bazuen nola bait. Asi zan bada puztu ta aizez arrotzen bere larrua, ta jarri zitzaion buruan azi zala asko, ta galdetu zioen bere umeai idia beste ote zan. Eranzuten dioe ezetz gutxiagoaz ere. Puztuagoa egin zan berriz puxiga bat balitz bezela. Puzka ta indarka zebillela, orra non eztanda edo ler egin zuen larrua etenda.

Ipui onek erakusten digu ez degula arrotu bear andiago, ederrago ta aberatsago izan naiz.

Aizez gizendua

Laster da galdua.

Igoten duenak goregi

Jo bearako du beregi.

LEOYA TA ARZAI A

Leoitzar izugarri bat zebillela basoan larraren artean, sartu zitzaion aurreko oin azpi batean arantzea ta anditu agitz, errenka ta miñ andiekiñ baño ebilli ezin zala. Arkitu zuen arzaia ta nai zion oni adierazo non miñ zuan; eskatzen zion laguntasuna oiñ arantzatua eskeñirik. Ikusi zuenean arzaiak bereganonz zetorrela leoya, sartu zitzaion ikara larria, ta gaitzik ez izatearren, eskeñi zion ardi bat. Ordea leoyak ez zuen ordu artan ardi goserik ta bakarririk billatzen zuen osasuna ta arantza ura ateratzea, ta orretarako eramán ziozkan arzaiari bularrera bere beso biak ta erakutsi zion oiñ minberatu ta arantzatua. Bereala igarri zion arzaiak, zer nai zuen leoyak, ta beldur guzia joanik, artu beso gaixotua; aztertu zituen oiñ azpiko bazterrak, ta arkiturik arantza sartua, atera zion poliki, ta gero garbitu ere ziozkan barruan andituarekin egin ziran ur ustelak. Ekusi zanean leoya ala sendatuta, eskerrak eman nairik itz gabe, millizkatu zion arzaia-ri esku gañea ta aldi batean egon zan bere aldamenean.

Egunak igarota arrapatu zuten leoya gizon batzuek, ta eramán zuten lotuta erri andi

batera presondegia kaiolatu baten gordetzeko, ta aperatzeko plaza edo toki agiri ta langatu batera, zezenak atera oi diran bezela, botatzeko jan garriztat gizon gaiztagiñak. Iñork ez daki zergatik, baña artu zuen justiziak, aitatu degun arzaia, ta agintariak erabaki zuten bota bear zala gizon ura leoyak irentsi zezaten. Arzai gaixoa eraman zuten plazara, atera zioen leoitza, zezen bat oi da bezela; ekusi zueneko gizon bakarra, oñak ariñik abiatzen da, sua zeriola, arrapatzeko arzaia, baña orra non besoak egotzeko unean ezagutzen duen leoyak gizon ura zala bere ongillea, berari arantza atera ta osasuna eman ziona. Atzeratu zituen beso, apurtzeko jasoak, jarri zan leoya begira barrera gañetan zeuden jendeai, ta arzaiari gaitzik egin gabe, biurtu zan bere kortara; kiñuekin adierazo zion leoizaiari zijoala andik bere zeregiñetara.

Biurtu zan berriz plazara pozkaria agertzen zuela, jarri zitzaion arzaiari aldamenetan, ta zegoan au bere zai ta gordetzalle egin da. Ikaratu zan jende guzia zekusanaz. Agindu zioen arzaiari irtetzeko plazatik, joateko nai zuen lekura. Abiatu zan irtetzeko; jarraitzen zion leoyak nora nai txakurtxo batek bezela. Jakin zutenean arzaiagandik zer gertatu zitzaion basoan leoi arekin ta zergatik

gero gaitz egin ez ezen erskusten ere ziozkan amorioaren señaile edo igargarriak, askatu zituzten leoya ta arzaia. Leoya joan zan bere basora ta arzaia bere ardizaitzera.

Ipui onek erakasten du izan bear degula eskertsuak gere ongillakin ta mesedeak geitu bear dizkiogezala mesedeak egin dizki guenai. Eskergabetasuna dala gaitziritzia be-ti, ta guziak gorrotoz begiratu oi dioena.

*Mesedeak dituzu artu?
Ez zaiteala iñoiz aztu.*

I P U I XXV

ZALDIA TA LEOYA

Leoitzar batek ekusirik zaldi mardo ta gizen bat zebillela zelaian belarra jaten, etorri zitzaion gogo edo asmoa arrapatzeko. Urreratu zitzaion, ta asko nai balio bezela, edo adiskidearen estaliz, diotsa:

—Ni naiz sendagille edo mediku txit aditua.

Igarri zion zaldiak zebillela gezurrez ta asmo gaiztoz, baña ala ere egin zion arrera ona, igarri ez balio bezela, ta adierazo zion poztutzen zala idukitzeaz alako mediku bat

bear orduetarako. Zaldia asi zan errenka gaiztoz, oin batean arantzea sarturik zedukala sinisterazotzeko leoyari, ta esaten dio:

—O leoi ona!, eta zeinbat gozaten naizan nere atsekabearen erdian zu bezelako sendagille bat bear ordu onetan, emen agertzeaz! Atera bear didazu atzeko oin batean sarturik dadukadan arantza ofiazatzen nauena.

Leoi tontotzarrak, ezagutu gabe zaldiaren gogoia, diotsa:

—Damu det orrenbeste mifiekkin zu egoitea; ez larritu, neronek atzako dizut arantza ofiazagarri ori, nik largako zaitut mifigabe ta guziz sendaturik.

Bata ta bestea zebiltzan nork nori gezur kaltegarria sartu.

—Ekarzu bada —diotsa leoyak— gaiso dezun oifiori.

—Tori—, esaten dio zaldiak, ta oña jasorik, jotzendu bekokiaren erdian ostikada gogor ta ondo zuzendu batekin, ezarten du lurrera, largatzen du leoitzarra konorte gabe, ta artzen du zaldiak igesa. Bereganatu zanean leoya arpegi ongi mallatuaz, ez zuen aurrean ekusi zaldirik. Odola zeriola, ta agitz miñ, dio:

—Ai, ai! Nerea da obena edo kulpa. On-

do gertatu zait. Uste nuen jakitunagoa nintzala zaldia baño; gezurra nerabillen ezpañetan, ta asmo gaiztoa biotzean. Larga banio geldi zaldiari, bere bearrak geldi idukiko zuen. Ark ez zuen arantzarik ofietan; nik bai bere ostikada galanta bekokian. Zerk sartu ninduen ez niakian beargintzan? Nere burua sendatu ezin det, ta siniserazo nai nuen sendagille eder bat nintzala. Gezurra ren irabazia!

Ipui onek esan nai du, ez degula iñoiz sartu bear ez dakigun ta ez dagokigun lanean. Iñori kalte egiten dionak, erakarriko duela kaltea bere burura.

*Ipiñi diozu iñori lokarria?
Izango zera bertan eroria.*

I P U I XXVI

ZALDIA TA ASTOA

Zaldi eder bat, guzia apaindua, katea zillarrezkoz, jarleku, ugal, ta anka estalkiz urrez bitxitua, jabe aberatsa zedukana zi joala bidean arro arrorik, idoro zuen asto makal, argal, pisuaren pisuz makurtu ta obendua, ta atzetik makillada gogorak ematen ziozkana astazai erruki gabeak. Ekusi.

rik zaldiak ez ziola beingoan alderik egin bidetik ezin zezakealako nekatuaren nekatuz, esan omen zion astoari:

—Arrituta naitziagok, asto zatarra, nola ostikadaz asetzen ez audan Zergaitik bazteztu ez, ni ikusita? Zergatik egon ez aiz geldi bazter batean ni igaro artean? Nor naizala uste dek? Nago ni ain apaindua zillar ta urrez pitxitua. Nere korta edo egontokia garbiago ziangok askoren etxeetako gela ta lotegiak baño. Nere etxeko nagusiak egiten diezte agiraka gogorak morroiaiegu-nero garbitzen ez badute nere egonlekua; askaan autsik ez du arkitu bear, ez da garagarrian ere. Garbitzen dizkide ofiak; leundu bear dituzte nere bizkarra ta ankea; nere illeak argi egin bear du. Begira bada zein mardo, gizen ta mamitsua nagoan. I herriz, zatar ori, burutik ofietara ago edo autsez josia edo hasatua; agiri dituk bizkar-ezur-rak; jostorratz edo eztena zirudiek ireberna zanko gabeak: burua jaso ezin dek, belarri makaldu ta zaurituak agiri dituk; hidean nekea ta etxean gosea. Onelakoak izanik, ez didak lotsa geiago gordeko? Lenengoagatik barkatzen diat. haña begira beste bein onelakorik gerta ez dedin.

Ikaraturik astoa aitu zituenekin zaldi arroaren aotik, zijoan aurrera erneguz ta

biraoa madarikatzen zuela sortu zan ordua Andikan urte batzuetara izan zuen astoak jabe obe bat zeñek ematen zion ondotxo jaten ta ez bear gogorretik eragiten. Mardotu ta ille edertu zan gure astoa. Baña bestera gertatu zitzaion zaldi arroari. Urteak igarorik, saldu zion bere jabeak errotari txatar bati zeñek eragiten zion bearra txit agitz, ta eman jateko gutxi ta makillada asko. Onela bere mardotasuna desegin zan, agertu zitzaizkon bizkar ezurrak, zorroztu anka len gizena, laztu illea, zauritu bizkarra, makaldu burua, ta ezin iñork esan zezakean lengoa zala. Zegoala asto uraxe bera ibar batean belarra jaten pizkorturik, dakus ta ezagutzen du lengo zaldi bere agirakari arroa, trallatik zeramala errotari txarrak. guzia argaldua, aginte ta indar gabea, bizkarrean zituala zorro andi bi, buruz bera, basta zatar ta ugal erdi etenekin, gerrirafio lokaitzatua, ta diotsa astoak burla egin bearrez:

—O zaldi jauna! Eta zein aberatsa zeran! Nora ditu berorren anziñako zillar ta urrea zeriozkien apainduriak? Nora da arako buru arro ta gallendua? Non da orduko mardotasuna? Nora iges egin dute berorren mami galantak? Etorkizunai begiratu gabe, zu izan ziñan, bai, ta ez besterik, eskatu zinidana

baztertzea ta geldi egotea igaro bear zenuan bidea idukitzeko zeretzat bakarrik. Zu, nekepean ni ikusita, errukitzen ez zifana. Goiak beratuta dira. Orain nago ni jabe onarekin zaartza on batean, belarra emen jaten, guziau pizkortuta, ondotoxo jan ta, bear neurri onekoan bizitza daramadala. Ez zaude zu orretara oiturik.

Ipui oek erakasten dioe aberats ta andikiari, ez abegor txarrik egitea, ez itz gogorrik esatea nekean bizi diranai, beragokoai; ta izan ditezela errukior ta biotz biguñen jabeak premian daudenentzat. Ez dala arrotu bear andilekuetan, goikoak iruli oi diralako bekoetara. Biotz bera ta arrotasun ga-beak iraungo dute beren goratasunean, baña

*Zapaltzen duenak beekua,
Artuko du bere lekua.*

I P U I XXVII

LURREKO ABERE TA GOIETAKO EGAZTIAK

Jaiki zan errierta ta auzi odolezko bat lurrean dabilzan lau ofeko ta goietan egoz dabilzanen artean. Ez batzuek ez besteak atzeratu nai ziran aserrean egotetik. Ikusirik

saguzarrak lurrekoak garaituko zituztela goietako egaztiak, andiagoak ta indartsua goak ziruditelako, alde egin zuen egaztien aldetik igarotzeko lau oñekoen bando edo aldera. Egunak etorri ta joan zebilzala, pres-tatu ziran beste batalla edo auzka gogorra-gorako, bada lenengo erriertan batzuek ta besteak gelditu ziraden igarri ezinik nor izan zan gogor ta garaitiago. Etorri zitzaien egaz-tien bigarren errierta odoltsurako, len bere-kin iduki ez zuten arranoa. Oek bildu ta al-karturik, jetxi ziran lurretonz ekiteko go-gorki leoi, zezen, otso, basaurde, katamotz ta txikietarikoai ere bai. Zein ekusteko ede-rra! Goian anbeste egazti atzapardun; bean lau oñeko izugarri beldurra sartu bear zu-tenak. Arrano pillo batek beren egotzarren otsarekin sartzan zioen izua beekoai. Zeto-zen gero beste egaztiak, ta beren moko ta atzaparrakin zauritzen zituzten. Lurrekoak ekin naiagatik, kolpeak emanda, beren egoe-kin alde egiten zuten; bazetozen herriz lau oñeko iges egin zutenetara, ta oen arteko ba-tzuei ateratzen ziezten begiak; beste batzuek largatzen zituzten errenka, mankatuta, ta ez gutxi guziz ilda. Zebillen lurrean zezen, otso ta lau oñeko askoren odola. An zan en-zutea zakurren inziriak, zaldien irrintzak, leoi ta zezenen orroak, basaurden urrumi-

zak, aizerien illetak, katamotzen miao izugarriak.

Ekusi ziradenean lurrekoak garaiturik, ta anbeste lagun galdu zutela, eskatu zioen pakea egaztiai. Oek etorri ziraden orretara, baña eskatu zituzten bi gauza: bata, gerra artan illik gelditu ziran lau oñekoak gelditu bearko zutela beren janaritzat; ta bigarrena, saguzar saltzalleari berak eman bear ziotela erabaki edo sentenzia. Egin zuten orretarako egaztiak batzarra, ta agindu zan kentzea saguzarrari zituen lumak; billostu edo larru gorritu bear zala: ez zegitela saguzarrak iñoiz argitara irter. Ala oi dabilta ezertarako gauza ez dirala ta iñork ekusi nai ez dituela.

Ipui onek dio:

*Bere odoleko ta adiskidien saltzallea
Dala bere buru galtzallea.*

I P U I XXVIII

AIZERIA TA OTSOA

Otsoak, eizan zebillela, hete zuen bere lur uspe edo leizea arikiz, erbikiz ta aunkiz, ta bazedukan zer jan egun askotan.

Usaira urreratu zitzaion aizeria leiza aurre-
ra, ta kanpotik edo sarreratik diotsa otsoari:

—Nere jaun prestua: egun asko da alkar
ekusi ez degula. Argatik natorkizu gaur
egitera ekustamen edo bisitatxo bat. Beste-
tik nere sabeleko utstasunak, egun askotako
jan ezak, naduka aginte gabe. Uste det erru-
kituko zerala nizaz. Badezu or zer eman zu-
re kalte ezagutu gabe.

Igarri zion otsoak zer zerabilen aizeriak,
ta diotsa berrunbetik:

—Asko jakin gaiztoa: guziak ezagutzen
aute. Ken adi ortik. Ez ator i nere onez.
Atera nai nauk emendik, gero arrapatzeko
ixillik nere janariak. Billa ezak alper zital
orrek. Nai dek ifloren maian jarri, galanki
bazkaldu, ta bearrik egin ez?

Aizeriak irten zuen buruz bera ta erne-
guz, ta dio:

—Otso zeken ta prestueza: gogoango di-
dak niri zer jan ematea ukatua.

Juan zan basoan ardiak zaitzen zegoan
mutill bategana ta esaten dio:

—Arzaia: ze zari edo aloger emango di-
dazu agertzen badizut non dagoan ezkuta-
turik otso zure etsai andia? Arrapatu edo
illko dezu txit erraz.

Diotsa mutillak aizeriari:

—Sari onak emango dizkizut ori egiten badezu.

—Atoz bada nerekin —esan zion aize riak, ta eraman zuen otsoaren leizara. Sar tu zion arzaiak burni zorrotz bat saietsen ar tean ta larga zuen illik. Ikusi zuenean aize riak illik otsoa, diotsa arzaiari:

—Ez det orain zure alogerik bear.

Sartu zan leizan, ta otso illaren aldame nean ase zan arikiz ta ardikiz, ta igaro zi tuen egun asko bazkari ta apari ederrak egi ten. Otsoaren ondasunak ez ziran betiko. Ai zeriak irten zuen ollo billa ta erori zan ipi fi zioten lakio edo tranpa batean. Katigu zegoala, gogoratu zitzaion otsoarekin egin zuena, ta esaten zuen:

—Gaitz egin nion otsoari, ta argatik da torkit neroni ere eriotzako bidea.

Ipui onek erakasten dioe gizonai, ez ifioiz pozik artzeko ifioren gaitzaz; geretzat nai deguna nai izan bear diogula besteai; ez de gula damurik artu bear lagunaren ondo iza teaz. Gorrotu izan bear diogula sekentasu

nari, zefiek ekarri zion otsoari bere galtza-
pena.

*Ez egin iñori kalterik,
Ez artarako eman biderik.
Gizon prestu ta esku zabalekoa
Izango da guzien gogokoa.*

I P U I XXIX

BASAUNTZA TA EIZARIA

Iturri batean edaten zegoala basauntza, ekusi zuen urean bere adarraren keriza. Asizan arrotasunez esanez:

—Nor ni bezin ederrik? Nork iduki buruan nik daukadan bezelako apaingarririk?

Begiratu zan gero ofietara, ta ekusi zituen berna ain me, argal ta mami gabeak, erori zitzaizkon biotzeko egoak. Onela zegoala txit larri, enzun zituen txakur zaukak, ta burua goraturik, dakus eizari bat zetorrela txakurren ondoren. Bafia nola ofiak zituen txit arifak, iges egin zioen erraz ta sartu zan baso txarakate batera. Emen zan estua. Katigatu zitzaion bere adarra txarako otatza ta larretan, ta egin alak eginda, ezin askatu zuen ta gelditu zan gatigu. Txa-

kurrak jarraitzen zioten bere oñatzetatik, ta eizariak ere bai txakurrai. Ekusi zanean eriotzako ortzetan, esan omen zuen:

—Ai, ai! adar au da nere galgarria, bestela nere oñakin erraz gordeko nuke burua. Nik uste nuen mesede andi bat nedukala adar apaingarri onetan, ta madarikatzen nituen nere oiñ me ta argalak. Orain ezagutzen det nere kaltean, oñak ditudala nere gordegarriak ta adarra nere galgarria.

Onetan zegoala, eldu ziran txakurrak ta eizaria ta arrapatu zuten.

Ipui onek erakasten du ez dutela gizonak aldi askotan ezagutzen zer dan ona ta zer txarra berentzat. Ontzat dauzkatenak izan oi dirala kaltegarrienak. Edertasun ta apaingarriak iduki oi dira ontzat, ta askorentzat. basauntzaren bezela, izan oi dira kaltegarriak. Aberatsak uste du dala zorionekoa diru askoren jabe dalako. Baña lapurrak birlatu dituzte sarri beren etxeetan eriotza emanaz, ta nekazariaren etxean ez dute oñik ipifiko.

*Itxurapen utsaz ez zaiteala arrotu
Okerra zuzentzat ez dagizun artu.*

AIZERIA, OLLARRA TA ZAKURRAK

Goseak estutzen zuen aldi baten, eldu zuen aizeria burua lurraren kontra zerabillela, ollarrarekin olloak zebiltzan toki batera. Ollarrak igarri zion aizeriaren etorrerari; asi zuen karkarasa estuekin olloak biltzen, ta igoerazo zioen guziaz arbola gañera bera aurrenengo zala. Aizeria jarri zuen arbolapean, ta esaten dio palaguz ta itz labañakin ollarrari:

—Zer egiten dezu goi oxiatan zure olloekin? Noren beldur zera? Nere? Ez nator ni zuen billa zuei gaitz egiteko, ta bai lurreko berriak zuei emateko.

—Ez dakit nik ezeren berririk —diotsa ollarrak arbola gañetik.

—Egin da bada —esan zion aizeriak— lurreko lau oñeko ta egazti guzien artean betiko pakea. Emendikan aurrera ezin alkarri gaitzik egingo diogu. Jetxi zaite bada beera zeure lagun oriekin, ta pakearen izenean egingo degu alkarrekin bazkari eder bat.

—Benaz benaz —diosa ollarrak— poz andi bat ematen didazu berri orrekin.

Ta au esanda, jaso zuen burua ta luzatu iduna zerbait balekus bezela.

—Zer dakutsu? —esaten dio aizeriak.

—Dakustaz —diotsa— txakur bi datozela arinka ta zaukaz, ta etorriko dira pakearen berri onak guri ta zuri ekartzera. Ala bada, txakurrekin, emendik jetxita, egingo degu guziok bazkari zuk diozuna

—Agur, agur —esaten dio aizeriak— ba noa ni emendik.

Ollarrak arbolatik:

—Eroa. Nora zoaz? Zeren beldur zera pakeak egin badira? Txakurrak ere ezin gaitzik egingo dizute.

—Ori ala da —dio aizeriak— baña gerta liteke datozen txakurrak bake berririk ez jakitea.

Onekin iges egin zuen txakurraren zai egon gabe.

Ipui onek dio, asko jakiñentzat badirala asko jakiñagoak; gezur batek agertzen duela beste gezur bat.

*Ez bada iñori gezurrik sartu
Gezurra ez dakizun agertu.*

AITA, TA SEME GAIZTOA

Guraso batek zeukan seme oker ta gaizki azi bat zeñek ematen ziozkan naigabe andiak, ta negar eragin oi zion txit sarri. Aldi askotan gelditzen zan gabaz kanpoan. Egiten bazion agiraka, largatzen zuen gogorra-goak eranzunda, ta ezin bururik egin zuen berarekin. Seme gaizto onegatik morroi ta mirabeak ere eraman oi zituzten atsekabe asko. Oei esan zioen etxeko jaunak ipui au:

Nekazari batek zeukan idisko gazte, mardo ta ezi gabea. Ezin zidin, uztartu zuen idi ekandu batekin. Zekusanean idiskoak lepoa uztarpean gatigu, ta ezin jaso zuela burua nai bezala, indarka ta ostikoka mankatzen zuen idi uztarrian geldi zegoana. Nekazari, bien jabeak, akullua arturik, ematen ziozkan galantak idisko uzu ta ezi gabeari, ziotsala:

—Ez zaitut nik uztartu burdia erabilli ta soroan lurra aratzeko, ta bai bakarrik ezitzeko zure lepo gogorra.

Onela geldika akulluaren bidez ezi zuen, ta gero, uztarria erakutsi ta beste gabe, etorri oi zan idiskotxoa burua makurtzera.

Ipui onek esan nai du, gaztetatik uztartu edo ezi bear dirala umeak, lepo biguña daukaten artean. Ekarri bear dirala onez ta gaitzez esanak egitera, gurasoai lotsa gordetzera, etxeari begiratzera. Au ez egiñagatik mugonez ta gaztetxotan, lepoa gogortzen dala ta gerora ezin ekarri dirala eskura; gogortzen dirala gurasoen kontra, irtetzen dutela lotsa galdikoak, bizitza txarrekoak ta atsekabe asko emateko. Au ezagutu zuen, baña berandu, len aitatu degun aitak.

*Daramana gaztetatik uzturria
Izango da ume ondo azia.
Gelditzen bazaio idun gogorra,
Berandu etorriko da zigorra.*

I P U I XXXII

ESKUA, OÑAK TA SABELA

Eskuak ta oñak alkar arturik ekin zioen sabelari, esanaz:

—O lagun gaiztoa! Gure bear ta nekeakin daramazkitzu egun gozatsuak: asetzen zera jan ta edanaz gure irabaziak. Oñakin goaz sorora; esku ta oñakin laiatzen da; mastiak ardorik emango badute, ezin dute eskuen neke aundi gabe. Aldi askotan beso guztiak

arikatu bear dute. Zenbat bider oñez bide luzeak egin bear dira zerbait irabazteko? Zuk, o sabel gaiztoa! daramazkitzu zere barrunbera gure neke ta izerdi guzien irabaziak: ogia, ardoa, ta zer ez? Eta asetzen ote zera beti gure irabazi al guziakin? Guretzat ez dago nekea baizik. Ez degu ezer jaten. Ala bada ikasi bear dezu beargintzaren bat zer jan izaiteko: erabaki degu guk, ez bearririk egitea zuretzat.

Eranzun zioen sabelak:

—Ez, arren, onelako asmo txarrak artu. Ez dakizute nik ezin ezer irabazi dezakedala? Ze beargintza ikasiko det? Asko zor dizuet, egia da; egiten dezute bearra neretzat; ordea zuek partil izan oi zerate. Nere barrunbera datorrena, ez da guzia bertan gelditzen; neretzat bear dedana gorde, alper dana bota, ta zuekgana igarotzen da bizi ta sendakaia. Nik jaten ez badet, nola zuek bizi? Nola bear egin? Alkarri bear diogu lagundu, bada etxe batekoak gera.

Diotsate eskuak ta oñak:

—Asko jakiña, asmatzalle ta berritxua zera guri zoraerazotzeko. Gezurra diozu; ez gera gu zure bear, ta ez dizugu lagunduko.

Larga zuten sabela egun batzuetan janik ta edanik eman gabe; ill zitzaion barruko

berotasuna, leortu ta igartu mingaña egarriz. Sabelaren jan ezaz argaldu ta indar gabetu ziran esku ta oñak. Ezagutu zuten oek nondik zetorken kalte ura. Ematen dioe jaten ta edaten sabelari; baña berandu zetorren sendagarria: ill zan sabela ta ill ere ziran esku ta oñak.

Ipui onek esan nai du, ez dala bakoitza guzia beretzat; edozein gizonek bear dituela lagungarriak senide, adiskide ta ongillen artean. Errege bat ere ez dala izango errege, bere mendekoak laguntzen ezpadioe. Etxe, soro ta baso asko dauzkan andikirik aberatsenak, burua galdu ez badu, aitortuko du alperrak dirala olako ondasunak, nekaten ezpada beargaña; ez duela ez errenta, ez gari, ta ez ikatzik izango nekazariaren eskubear gabe. Eskuak, oñak ta sabelak alkarri lagundu bear dioen bezela, ala gizon batzuek besteai, galduko ez badira. Ezaguerara onek ekarriko gaitu alkar maite izatera, beragokoai ez erakustera gogortasunik.

Baledukate au gogoan nagusi ta etxejau nak, oniritzi ta maitetasun geiago ekusiko litzake beren serbitzari ta errenteroen alde ron, zeintzuen neke ta bearregiñez dauden anbeste era ta jauntasunean. Orregatik,

*Bat beretzat ez da asko;
Laguntasuna du bearko.*

GIZONA ETA ASTOA

Gizon batek, zerbait irabazi nairik, ezarri ziozkan bere astoari bizkarrera perz edo lapikoz betetariko otarra bi, ta nai zion arifi eragin anbat lasterren eldutzeko feria andi bat zegoan errira. Asto gaixoari ematen ziozkan makillada gogorrak, al zuen bañio arifiago eragiteko. Baña geroago ta laburragoa zan astoaren ebillera edo pausoa. Gitxi jan, pisu andia, makilladak ugari, larga zuten aginte edo adore gabe. Onela estutu zan, ta esan omen zuen buru andikoak:

—Ai illik banengo! edolarik bukatuko lirake nere nai gabeak.

Alako batean, erori zan illik, ta erortiaz ausi ziraden perz edo lapiko asko. Astojabea asi zan biraoka ta kolpetzen abere illik zegoana. Ekusirik anbeste kalte, astoa illda ta lurrezko ontziak apurtuta.

—Zer egingo det? —dio—. Kenduko diot larrua astoari; egingo ditut arrazkoak.

Nekatu zan orretarako niatzen ta moldatzen larrua. Gizonak izan zituen kalteak, ta astoak illda ere larrua eman bearra; ark, bere zekentasun ta errukirik ezaz, onek erioztari biraoz dei egin ziolako.

Ipui onek irakasten dioe batzuei, ez geiegi irabazi nai izatea; ez mendeko ta morroi mirabeai neke larregi edo gogorrekiak artu erazotzea; ta beste batzuei, ez dei egitea eriotzari erneguz.

Eriotza txarrarekin ez dira bukatzen atse kabe guziak. Kristau batek begiratu bear dio beldur onez eriotzari. Etorkizunak erakarri bear gaitu ez ernegatzera atsekaben artean, ta artzera pakez lurreko naiez ta penagarriak.

*Eriotzari erneguz deitzea
Ez da naigabea kentzea.
Gabilitza geiegiaren billa?
Izango gera gure kaltegilla.*

I P U I XXXIV

AIZERIA TA MATSAK

Eldu zan aizeria mats-landara azi bat orman itxatsita zegoan etxe baten ondora. Eku-si zituenean mordo ederki elduak, etorri zitzai on jateko gogo bizia. Abiatu zan alde guzietatik aztertzen nondikan igo al zezakean mordoak zeuden tokiraño. Ez zuen igobide onik arkitu. Dio:

—Igoko det landaratik.

Ordea nola matsaren adartxo ta aienak ziran argal, indar edo sendotasun gabeak, zerbait igo zuenean erori zan lurrera. Erne-gatu bear zuen mordo ederrak ekusi ta ezin arrapatuaz. Aitortu nai ez zuen bere ezin artua, ta dio estalgarritzat:

—Mordo oek ez dira oraindikan ondo eldu; gaitz egingo liket jango banitu, ta ala, obe det ez jatea.

Ipui onek adierazotzen du, zurtasun ta asko jakifia izatea dala noiz bait ez daki-gulako egitea. Orregaitikan.

*Ondo da noiz bait eza erakustea,
Ta jakinda, ez jakifarena egitea.*

I P U I XXXV

OGI-GAZTAIA TA SAGUA

Ogi-gaztaia zar batek ezin artu zituen saguak oñak astunak zeuzkalako, ta asmatu zuen sartzea iriña zegoan arrazko batean, ta irten zuen zuriz janzirik Jarri zan toki illunean, bestela ezinda asmo gaiztoz saguak arrapatzeko. Eldu zan toki artara sagu gaitz gabeko bat, ta begitandurik, gauza zuria ekusita, janariren bat zala, erori zan bere

etsaiaren atzaparretan. Ala eldu ziran beste sagutxo bi, ta gertatu zitzaien beste ainbeste. Eldu zan arratoi zar, asko jakiñ, ta beti zebillena ondo bazter ta gauzai begiratzeten erori ez zidin lakioren batean. Zuritasuna ekusita ez zan ero erorik iru sagutxoak bezela geiegi urreratu. Igarri zion irin utsa ez zala, bazebillela gauza biziren bat. illaren itxurapean. Diotsa:

—O sagu arrapatzalle arnasea ito nai dezuna ta soñoko zuriz estalirik zaudena! Asmo oriek on ta egokiak dira sagu gazte ta gutxi jakiñak arrapatzeko uste gabeen, ez ordean ni bezelako soldadu zar, zure ta zu bezelakoen asmoak ondo ikasirik dauzkenak atzaparretara eramateko. Askotakoa egin bazaituzte zeure urte askoak, bai ni ere jakiteko non zer dagoan.

Ipui onek dio, indarririk ez duten askok beren buruak gordetzeko badituztela zurtasun ta argia, desegiteko etsaien sendotasun eta asmoak.

*Belar artean dago sugea;
Ez bada izan arduragabea.*

ITZAIA TA OTSOA

Gizon bat zebillen basoko larrean idiak zaitzen, ta urbildu zitzaion itoka otsoa. Diotsa ark oni:

—O otso salobrea! Zerk zakarzuki ona ain estu ta larri?

—Ez dakutsu —erantzuten dio otsoak— nola datorren eizaria nere hilla? Ez, arren, ni salatu; ez ezan zein bide artu dedan.

—Zoaz beldur gabe —dio itzaiak— ez diot txist bat aterako, ta erakutsiko diot okerreko bidea.

Andikan laster eldu zan eizaria, ta galde-tu zion itzaiari nora zan otsoa, zein bide artu zuen. Au zegoan urtxoan sasipe baten ezkutaturik ta ikaraz. Itzai asko jakifiak eskuz ta aoz erakusten dio bide okerrekoa, baña begien kiñuz, zuzen ta otsoa zegoana. Eizariak ez zioen igarri begien kiñuai, ta esku ta aoz erakutsi zion bideari jarraitu, ta okertu zan. Irten zuen sasipetik otsoak, ta diotsa oni itzaiak:

—Esker andiak eman bear dizkidatzu gorde zaitudalako; itzekoa izan naiz.

—Bai —eranzun zion otsoak— eskerrak

zure ezpañai ta zure eskuai, baña madari-
katua izan dedilla zure begi gaizto kiñu-
laria.

Ipui ederra itz labafi ta samurrekin biotz
dollor ta tolesturaz betea dutenentzat, ta
ezagu erazitzeke zenbat kalte egin dezake-
ten. Auan bat, biotzean beste bat, da gizon
malmutz (9) ta okerren natua (10). Argatik,

*Askok dituzte itz eztitsuak
Ta biotzez asmo beazunduak.*

I P U I XXXVII

OTSOA TA ATXURLARIA

Otso bat erori zan lakio batean, ta ekusi
zuten gatigu zegoala atxurlari batzuek. Ur-
bildu zitzaizkion, ta an zan ekustea; ba-
tzuek agakadak ematen, beste batzuek ista
ta farra egiten. Esan zioen beren arteko ba-
tek:

—Gizona, zertako da gaitz egitea gaitzik
egiten ez duenari?

Atzeratu zituzten aga edo makillak ta lar-
ga zioen gaitz egiteari, errukitu ziran ogia

(9) *Malmutza*=taimado.

(10) *Natua*=genio.

emateraño. Gaba eldu zanean, joan zan ba-koitza bere etxera, uste izanik ilko zala otsoa goizerako. Gau artan urratu zituen lo-karriak, iges egin zuen, ta laster sendatu zan. Gogoan zerabillen nola gaitz egin be-rak ere bere gaizkillai. Biurtu zan basotik soro ta landetara, ta aserrezko sua zeriola, ekin zioen arrapatu zituen artzai ta atxurla-riai. Larga zituen batzuek illik, beste ba-tzuek gaizki zauriturik. Sartu zitzaien bel-durra inguru artako errietakoai, ta erregu-tu zioen gaitzik ez egitea.

—Ondo da —dio otsoak— barkatuko dioet jo bafio egin ez nautenai; idukiko ditut adis-kidetzat nerekin errukitu ta ogia eman zi-datenak; bafia gogoango didate bizitza ken-du nairik ebilli ziranak.

Ipui onek erakasten digu biotz biguñeko ta errukiorra izaten. Bada

Edozeñi on egiozu;

Noiz bait damuko ez dezu.

ARAGI-EPALLEA TA ARIA

Ari asko zebiltzan larrean alkarrekin aldra edo tegi bat eginda. Etorri zitzaien okelazalle edo erriko aragi epallea, ta eram zuen ari bat. Bere lagunak egon ziran geldi, txistik ere atera gabe, asko ezpalitza bezela anbesteren artetik bat eramatea. Ala bein banaan, egunoro eramaten zuela bat bakarra, gelditu zan lagun gabe ari galant ta mardo bat. Etorri zan onen atzean ere, ta eskuak egozteko unean diotsa ari onek:

—O gure etsai odolgiroa! Eraman dituzu nere lagunak, ezkutatu dezu tegi guzia geldika gañibet gogorraren bidez bizitza kentzeko. Nerekin zoaz beste anbeste egitera. Guria da erokeria. Alkar ondo artu bagendu, lenengo etorreran guziok topeka ekin baginizu, gordeko giñan eriotzatik. Txoroak izan gera alkarri ez laguntzeaz. Orain bakarrik arrapatzen nauzu. ta ez naiz asko zuri arpegi emateko.

Ipui ederra ikasteko nola alkar ondo artu bear duten erri naiz etxe batekoak. Ari me bat errez etetzen da: ez alkarrekin soka lodi bat egiten bada. Au ondo aituko balitza, banatuko ezpalira gure borondateak, ez li-

rake ekusiko ainbeste errieta, ezin ikusi ta auzi. Bada,

*Arriskuari aurrez begiak ezarri
Kalte andiak ez ditezen etorri.*

I P U I XXXIX

TXORI-ARTZALLEA TA TXORIAK

Udako egunetan zeudela txoriak kerizpean alzutena jaten, ekusi zuten begi gaiztoko txori-artzalle bat, nola prestatzen zebillen kafiabera, ta zakuan zekartzen sareak. Txori gaixoak uste izan zuten gizon ura zala beren ongillaren bat, ta beren errukiz malakoak zeriozkala begietatik. Beren artean zorionez zeukaten txori pizkor, asko jakin ta begiratu bat, zeñek ezagutzen zituen gizonaren asmo galgarriak, ta diotsate:

—Nere lagun maiteak: ez dabil gure onean piztadun saare ipinitzalle ori; negarra ta errukia baño urrago du farra gu gakusazalako. Dauzkan sareak, dira gu barrunbean arrapatzeko, ta bere lepo-zakua edo burujakea gu gordetzeko. Sinis nazazute. Nai baditugu buruak gorde, iges egin bear degu bereala, ta orretarako egoakin gora igo na-

gitasunari lekurik eman gabe. Bestela eroriko gera bere sare asmo gaiztoz zabalduan. Antziñatik dakizkit onelakoen asmoak; bein baño geiagotan arkitu naiz berak arrapatze-ko irriskuan.

Sinistu zituzten txori asko-ekusiaren esanak; igo zuten landatik gora egaaturik; lar- ga zuten txori-artzallea aoa zabalik bere sare ta buru-jakearekin, iges egin ziotelako atsekabeaz.

Ikasi bear degu ipui onekin, artu bear dirala ondo nai digutenen ta jakitunen itz edo esan zuzengarriak. Ez jakiñak asko galdu ditu, ta gorde ere bai burua galtzetik norbaitek erakutsi dioelako erorgarri edo irriskua. Bada

*Lagun jakitunari jarraitu;
Bere itz onak pozik artu.*

I P U I XL

GIZON EGIA ZALEA, GEZURTIA TA TXIMOA

Gizon bik irten zuten alkarrekin lurra ta erriak ekustera; bata zan egia zalea ta bestea gezurti utsa. Zebiltzan zebiltzan eldu zi-

ran tximoak zeuden baso batera. Tximo nagusi edo besten buru bezela zanak, esauzioen beste tximo mendekoai:

—Ara non dakustazan gizon bi: zoazte ta esan egiozute datozela nere aurrera.

Egin zuten mandatua tximo batzuek, ta eraman zituzten gizon aiek tximo nagusiaren aurrera. Eldu orduko oek, exeri zan bera aulki eder batean; ipiñi zituen albo bietatik beste tximo guziak ematen ziola bakoi-tzari zegokion tokia. Galdetu zion tximo nagusiak gizon bi aietatik batari, ta au zan gezurtia:

—Zer diote nigatik gizonak?

Eranzun zion:

—Deritzat zu zerala errege andi bat; zure inguru ta aldamenetan daudenok dirala batzuek jaun aundiak, ta besteak soldau agintarien artekoak.

Gezurra bazerion ere, jaso zuelako itz labafekin erregetzaraño, erregeren izena aitu nai zuen tximo nagusiak, diotsa:

—Esan dezulako egia, emango zatzu sari eder bat.

Arro arrorik gelditu zan tximo nagusia gezurrezko andikeriarekin, ta galdetu zion egia zalea zan gizon bigarrenari:

—Eta zuk zer diozu?

Zion onek bere artean: “Gezurra esan due nari ematen badioe emen alako saria, nola koa emango ez zaio egia esaten duenari?”.

Eranzun zion bada:

—Zu ta emen zaudeten guziok zerate tximo batzuek ta besterik ez.

Aserratu zitzaion erregeren izena enzun nai zuen tximo nagusiari, ta diotsa:

—Zer? zatoz ona nor geran agertzera? Ez eman niri erregetasuna ta oni andikiena? Tximo utstzat eman? Ill bear dezu itz egin ez dezulako nere gogora.

Ala ill zuten egia esan zuena, ta saristatu gezurti andia.

Ipui onek salatzen ditu lurreko asko. Gezurti, itz labañ zaleak, biotz tolestua dute nak, igo oi dute sarri leku goietara, agindupetik agintari izaitera; ta egia zaleak, gezur gorrotokoak, biotz garbikoak, jo oi dute goitik bera, ta asko alditan gezurra da saristatua ta egia zapaldua. Baña,

*Gorde zaite itz labañetatik,
Ta alde egizu gezurtietatik.*

ASTOA TA LEOYA

Asto batek basoan zebillela topatu zuen leoya, ta diotsa oni:

—Igo bear degu mendi gañera, ta erakutsiko dizut nola asko ta asko nere beldur diran.

—Goazen bada —esaten dio leoyak farra eginda.

Igo zutenean, asi zan astoa arrantza sendoak egiten. Soñu au enzun zutenean baso artan zeuden erbi ta kuiak (11), irten ziran sasipetik ta artu zuten igesa. Diotsa orduan astoak leoyari:

—Ez dakutsu nola nere beldurrak atera dituen iges egiteko?

Eranzun zion leoyak:

—Asto jauna, erbi ta kuiak igesa artu erazotzeko asko ta geiegi da txakurtxo baten zauka. Ez zaite bada orrenbesteraño arrotu. Egingo banu nik emen orroa bat, ekusiko zenduke nola ikararen ikaraz iges egingo lukeen zezenak, basaurdeak, otsoak, artzak, katamotzak, mandoak, ta nork ez? Zein

(11) *Kuiak* = conejos.

gutxi beldurtu nazun ni! Zera bada asto buru aundiko ta belar luzedun bat baño gei-ago?

Ipui onek esan nai du farragarria dala askoren arrotasuna; ezer egin ezin, ta gauza askotakotzat beren buruak saldu nai dituztela. Bada

*Izan gabe burua andiriztea,
Da asto arranzaria izaitea.*

I P U I XLII

ARRANOA TA BESTE EGAZTIAK

Arrano asko jakin batek neke gabe jantzia billatzeagatik, asmatu ta zabaldu zuen bere jaiotzegunean eman nai zioela mai edo bazkari eder bat beste egaztiai. Eldu ziran bera baño egazti txikiago batzuek arrano prestu onen etxera, ta barrunbean zeuzkalla, itxi zituen ate ta irten bide guziak. Ill zituen banaka, ta berekin egin ere bai egun askotan bazkari ederrak.

Ipui onek dio, gizon andi ta aberats batzuek bazkari emate ta beste palagarriak dakartela gezur ta asmo gaitoa nekazarien kaltean. Au ekusten da bide txarreko iraba-

zi naietan. Eskeñiko diozke aurrez diruak erruki balituzte bezela; eman ere bai epean gari ta artoak. Au da arranoaren bazkari eskeñtzea. Baña beren bizkarrak gizenduko dira eskatuko diozkelako emanak baño geiagoak. Laster egingo dira nekazarien gari ta artoen jabe. Aberastu dira berak oek argalduaz, koipe guzia jan dioelako. Ala bada

*Erri askotan dira arrano gizenduak,
Ta nekazari gaixo berak argalduak.*

I P U I XLIII

LEOYA TA AIZERIA

Gizenduta zegoan leoy batek siniserazo nai zuen eririk zegoala, ta erakarten zituen bera ekustera beste abere ta lauofiekoak, zalako guzien buru edo erregea. Ordea eltzea ta irenstea guzia bat zan. Eldu zan leiza atarira asko jakiña zan aizeri bat. Diotsa oni leoyak bere etzuntegi edo oetik:

—Atoz aurrera.

—Ez ni —eranzun zion aizeriak—. Dakustaz sartzen diradenen ofiatzak; ez ordea irtetzen dutenenak.

Ala gorde zuan burua asko jakiñez ta begiratua izanaz.

Ipui onek erakasten du besteen kalte,
irrisku ta gaitzetatik ikasi bear degula ge-
re gordebidea. Orregatikan,

*Besteen gaitzetan ipiñi begiak,
Ta ikusi nondik diran etorriak.*

I P U I XLIV

OTSOA TA ASTO GAIXOTUA

Jakiñik otsoak gaixo edo eririk zegoala as-
toa, joan zitzaion ekustera sendatzeko estal-
garriaz. Ikutzen zion an ta emen, ta diotsa:

—Non dezu miñ? Non dago zure gaitza?

Eranzun zion astoak bere mediku edo sen-
dagille ederrari:

—Zuk ikutzen didazun leku guzietan dau-
kat miñik andiena. Orretan dago nere gai-
tza edo kaltea, ta eskerrak emango dizki-
tzut pakean bazaude. Zu bezelako sendagi-
llak dira gaitza irasteko obeak.

Ipui onek dio, gizon gaiztoak saldu nai
dutenean on egifña itz ederrakin, orduan ari
dirala guzien gaitz egiten. Bada

*Ez sinistu gizon gaiztoari
Gezurra dariolako alakoari.*

TXINDURRIA TA TXIRRISKIA (12)

Neguko egunean txindurriak ateratzen zituen gari ale lurpean gordeak eguzkira, barrunbean geiegi ezkuturik usteldu ez zitezzen. Ikusi zuen onetan txirriska soñulariak. ta eskatu zion zer jan. Diotsa txindurriak:

—Nere laztana, zer egin dezu udan negurako jangarria bildu gabe? Ez dakizu nola ni nekatzen naizan mugonez gero goserik ez idukitzeko? Alperra izanda nai dezu ifloren bizkarretik bizi?

Eranzun zion txirriskiak:

—Ez nuen udan astirik izan bear egiteko. ebilli nintzalako erririk erri, bazterrik bazter soñua jotzen.

—Ederki —esaten dio txindurriak— soñuarekin uda zabala olgutzen igaro badezu, igaro egizu negua danzitzen. Ala berotuko zera; ala kenduko dezu gosea.

Zeinbat artzen ote ditu ipui onek? Eta zein ederki erakasten digun txindurriak iges egiten alperreri! Gosea ill nai dute askok

(12) *Txirriskia* = cigarra.

iñoren bizkarretik. Iduki ere bai zer jan ne-
katu gabe. Argatik

Alperrak izango du gosea
Ta soroa zalga (13) txarrez betea.

I P U I XLVI

PAGOA TA KAÑABEREA

Baso batean zeuden alkarren ondoan pagoa ta kañaberea. Etorri zitzaien egoi aize zatar ta sendoa, ta pagoak ez zuen beratu ta makurtu nai, ta bai arpegi eman ta jar-ki aize gogorrai, esan ez zidin bera baño sendoagoa zala aizea. Berriz kañaberea makurtzen ta obentzen zitzaion, ta zerabilen aizeak bein batera bein bestera, sendo egon ezinik. Diotsa pagoak:

—O kañabera argal, miazti, ikarakorra! Zergatik zabilta zabuka ordi baten gisan. sendo egon ezinda? Ez dakutsu nola ni sendoago naizan aize guziak baño? Emen ausitzen dira beren asarreak niri zaburik eragin gabe. Arpegi ematen dioet, ta ezin dute ezer nerekin.

(13) *Zalga*=cizaña.

Eranzun zion kañabereak:

—Ezagutzen det nik nere argaltasuna; ez naiz ni zu bezein sendoa; ez det erakutsi nai ez dedanik.

Alako batean dator aize olatu ain portitz ta gogaitkarria non da ausi zuen gerri-gerritik gure pagoatzarra ta jo zuen bera, ofiean gelditzen zala kañabera giratzallea. Lurrean zetzala pagoa, egoi-aizeak garaiturik, diotsa kañabera zutik zegoanak:

—O pago luze, lodi ta mardoa; Nora dira zure arrotasunak? Zergatik sinistu ez zegoa-la zu baño indartsuagorik? Zure orri edo ostro argi egiten zutenak zimeltzen asi dira; laster igartuak ekusiko ditugu. Etorriko ere dira gizonak beren aizkorakin jo dezulako lurra, ta lotsa kenduta, txikituko zaituzte etxetara eramán ta surtan erretzeko. Ona zertara etorri dan zure arrotasuna. Ni makurtzen nintzaion aizeari ta nago orain zutik kalte gabe.

Ipui ezin ohea adierazotzeko gizon arro, astin, ta buruiritzikoai nola geroenean izango diran beratuak. Burua makurtzen dutenak edo umillatzen diranak, geldituko dira zutik, kalte gabe, aizerik gogorrenak garaitu ezin dituela. Zenbat mutill ta gizon arro,

indarra erakutsi naiagatik iritzirik sendoa-
goak diradela burruka ta makillaka, garai-
tuak izan dira, jo dute bea, lurpera gorpu-
tza eramateraño! O arrotasuna! Zenbat gal-
du dituzun! Orregatik egia garbia da, bera-
tzen dana goratua izango dala, ta jaikitzen
dana biotz arrotuz, beratua. Esopok baño
obeto jakin bear dute egia au Jesukristoren
eskolan azi diranak. Bada

*Ez iñoiz burua goratu geiegi
Eroria izan ez zaitean beregi.*

I P U I XLVII

MANDAKOA, AIZERIA TA OTSOA

Zebillen mandako bat mendipeko ibar ba-
tean belarra jaten; etorri zitzaion aizeria ta
galdetu zion onek:

—Nor zera?

Eranzun zion mandakoak:

—Zaldi grañoce galant bat zan nere aita-
aita.

—Ez dizut ori galdetzen —diotsa aize-
riak— ta bai nor zeran.

—Ni naiz lauofnekoa —eranzun zion mandakoak.

—Gogaitgarria zera —esaten dio aizeriak— esazu bada zein dan zure izena.

Berriz mandakoak:

—Ez dakit nik ori; ill zitzaidan aita gattetxoa nintzala ta nere izena aztu ez zidin itxatsi zidan nere ezkerreko ta atzeko oin pean; ezin inoiz irakurri izan det. Zu zera irakurlaria, jasoko dizut ofia, ta ekusiko dezu zer dion ta esango didazu.

Aizeriak, asko jakifia izanik, igarri zion zer asmo zerabilen mandakoak; alde egin zuen ixillik, ta dio: “Era ederra otso nere etsai tontotzarra galtzeko”.

Billatu zuen bada otsoa zetzala kerizpe batean, ta pozez bezela diotsa:

—O ero zenzu gitxikoa! Zer egiten dezu emen? Jaiki zaite bereala, atoz nerekin ta erakutsiko dizut non dagoan mandako gazte, gizen ta argi samurrekoa. Ez det nik indarrik itotzeko; zuk bai. Zuk illko dezu, ta biok sartuko gera partillean.

Sinistu aizeriari, ta joan zan otsoa berakin, mandakoa zegoan ibarrera. Galdetu zion otsoak:

—Nor zera?

—Ni naiz —eranzun zion— zaldi grañoe galant baten illoba.

—Ez diot ori —esan zion otsoak—, ezpada, nor zeran zu.

—Ni naiz bada —eranzun zion mandakoak— lauofñekoa.

—Gogaitgarria zaude —diotsa otsoak— esazu zuzen: zein da zure izena?

—Ori ezin esango dizut —eranzun zion mandakoak—. Gaztetxo nintzala, nere aitak itxatsi zidan izena atzeko ta ezkerreko ofñaren azpian. Irakurri nai badezu, atoz ononzago; jasoko dizut ofña, jakingo dezu zein dan nere izena ta niri ere jakifñ erazoko didazu.

Otso zatar gatz gabe ta tontotzarrak, eskatu zion ofña irakurtzeko, ta mandako jakifñagoak aurtigi zion ostikada gogor bat, jo zuen bekokiaren erdian, bota eragin ziozkan begiak ta garufñak buru ezurra ausirik, ta larga zuen bertan illik. Aizeria bitartean zegoan zelataka ekusteko zertan gelditzen zan irakurte alakoa. Irten zuen, pozez beterik, zegoan gisatspetik, aurreratu zitzaion illari, ta diotsa:

—O tontotzar adin ta gatz gabea! Zera

sartu au ez iakian gauzan? Nola igarri ez gordeko zuela burua ire ortzetatik mandako ostikalariak? Ez gaituk orain ire beldur, ez mandakoa, ez ni.

Ipui ederra ezaguerazitzeko berritxu jaikiñgurai beren zorotasun ta tontotasuna. Zein ero ta buru kaltekoa dan, galtzeko irriskuan jartzen dana!

*Ez aditzeko nai ez dezunik.
Ez galdetu bear ez danik,*

I P U I XLVIII

MIKA EGARRITUA

Egarritu zan mika bat ta irten zuen ur billa. Eldu zanean iturrira, ikusi zuen sakonduta zegoala ura, bereak antxitu ezin zezakean bezela. Estutu zan, baña ekusten duneskatxen batek ura eramateko ekarri zuen galleta bat, ordea zeifia ez zegoan erdiraño baizik urarekin.

—Au zer da! —dio—. Egarriak ito bear nauela uraren ondoan? Iturri sakondutik ta galleta erdi betetik urik artu ezinez? Zer egin dezaket?

Asmatu zuen ekartzea ta bein banan botatzea galletara arri kosko edo txikitxoak. Zenbat geiago botatzen zituen anbat gorago igoten zuen galletako urak, ta azkenik asmo onekin igoerazi zion berak nai bezela edan zezakean neurrirafio.

*Asko dezake eskuak,
Baño geiago buruak.
Garaituko dezu ezin egiña,
Baldin bazera asko jakiña.*

I P U I XLIX

NEKAZARIA TA IDISKO GAZTEA

Nekazari baserriko batek zedukan idisko mardo baña alper ta ezi gabea. Uste izan zuen jabeak askiko zala ezitzeko uztartzea idi paketsu ta bearrera cituarekin. Ikusi zuenean idiskoak lepoa gatigu, asi zan orroaz, ostikoka, indarka, ta bota zuen uztarria ugalak urraturik. Ikusirik nekazariak idiskoaren uzutasun ta ezi eziña, lotu ziozkan ofiak, ebaki ere bai adar biak zorrotzak zeuden aldetik, ala adar motzekin ifiori gaitzik egin etzegion. Uztartu zuen herriz. Idiskoak urratu zituen lokarriak, ateratzen zu-

en lur autsa jabeari itxuerazitzeko bezela
An ziran putzak, an ostikoak, an orroak, an
aoko pitsa. Aserratu zitzaion nekazariari, ta
diotsa:

—Idisko zoratua: egin diat alegiña ezitze-
ko ire arrotasuna; ez ziagok iretzat ez uzta-
rri, ez ugal sendorik; laguna galtzeko asko
aiz; lotsarik gordetzen ez diok jaten ematen
dianari. Alperrik izango dira nere neke be-
rriak; berdin ez ziagok iretzat ezibiderik.
Bada nik kenduko diat betiko ta laster, ere
arrotasuna; eramango aut aragitegira, ta
epallaren mallu gogorrek beratuko dik bu-
rua.

Ipui onek dio, gazte uzu, natu txar, ta
aziera gaiztokoak, berandu, nekez, ta asko-
tan iñoiz ere ezi ezin dirala. Zigorrada, agi-
raka ta beldurgarri guziak alperrak dirala.
Idiskoa gorpuztu, mardotu. ta zezendu ba-
da, jaikiko da jabe beraren kontra. Onela-
ko gizasemeak bakarrik ezi oi dira, edo pre-
sondegi gogorretan edo obeto, urkabean. Ala
bada txikitxotatik eman bear da aziera ona;
aurtxoak zigortxoak ekusita beldurtzen dira-
nean. Orregatikan.

Gaizto gogortuaren ezibidea
Da urkabera eramatea.

PIZTIA ITXUSI TA GIZON BIDEAZTIA

Lidiako aldamenetan dagoan ta Atlos deritzon mendi batean ezagutzen dira piztia izugarri ta itxusi batzuek: buruetan dituzte idiskoak bezelako adarrak; oñetan dirudite auntsak ta beste guzian daukate gizon nano edo txiki baten itxura. Eldu zan mendi artara leku urrutietatik erromes edo gizon bideazti bat. Irten zion esan degun bezelako abere zatar edo gizon-piztiatu itxusiak, zeñari ematen dioen Satyroaren izena. Diotsa onek pakez gizon erromesari:

—Atoz beldur gabe nere etxera; emango dizut mai ona, bada mendi onetako aldatz ta elurrak, nekatuaz gañetik, eman izango dizute gosea.

Etxera eldu ziranean, gizon bideaztiak eskuak berotzeko estutzen ta igortzitzen zituen bata ta bestea alkarrekin; egozten ere zuen aoko arnasea esku sabeletara. Maian jarri zanean, ekarri ziezten janaririk ederrenak. ta sabela berotzeko katillu bete ardo berotu ta zirakiana. Urbildu zuenean ezpañetara, erre ziozkan ardo gorituari putz egiten. Bazekusan au abere zatarrak, ta diotsa gizonari:

—Au zer da? Gauza desberdin bi dakus-
taz zukan. Ao batetik berotu zenituen arna-
sa emanda esku-sabelak; ta ao berarekia
puzka ta puzka oztu nai dezu ardo beroa.
Gizon okerra zera zu, bi aldetara egiten de-
zuna, ta biotz tolestuaren jabea. Ez det nik
nere etxean iduki nai zu bezelako gizonik.
Zoaz bada nai dezun lekura, ta etorri zeran
bidetik.

Ipui onek arrapatzen ditu biotz ta ao bi-
ko gizonak, atzetik saldu ta aurretik arpegi
ona daukatenak.

*Ez da ez farra egiteko,
Arpegi bi idukitzea,
Batez pakea saltzeko,
Besteaz auzi emateko.*

I P U I A K

itz neurtu edo berso euskarazkoan

ADIGARRIA

Gure euskara ez dala egiña lauko, edo zortziko batzuetarako baizik, esango dute ez gutxik. Jasoko dituzte erdarak zerurraño, azpiratzeko izkera etxekoa. Samaniego ta Renteria jaunak ots egiten dute ipuiak berso edo itz neurtuetan ta gaztelarren izkuntzan argira emanaz. Nork —diote gero— euskarara ezarri ta anbeste berso gisatan ipuiak? Aitu diot zerbait dakianari, Samaniego ta Renteriak jakin izan balute erdera bezein ondo gure euskera, gatz oraindikan ohea idukiko zutela beren ipui-bersodunak. Gauza oetan itzak ugariagoak dituela gure izkerak gaztelarrenak baño. Bestetik, gure itzak badituztela otsidakoak (consonantes) ta abere kontuak ondo ezagunak dira gure baserri ta mendietan. Ez da gaitza igartea zertan dagoan gure poesia edo bersogintzen laburtasuna. Dago bada bururik nekatu ez dalako, oitu ez diralako euskaldunak zortzi-

ko ta laukoetara baizik. Ai baleude aitatu ditudan bezelako jakitunak Samaniego ta Renteria euskaldun euskarara eman batzuek! Beste egunik ekusiko luke gure poesiak edo bersogintzak. Asi bear da ta jarraitu, aurreratuko bada. Asieran ez dira gauzak osotuak izaten. Geldika egiten dira aurrera-penak.

Esan nuan len berso ipuizko oiek ez dirala nere burukoak. Pillo andi bat dauka eginda nere osaba jaunak, ta pillotik artuak dira emen ekusiko diran gutxi batzuek. Saiagarri bat da au, ta ez geiago.

Esango ere da gure euskeraren lotsagarri-rako, ez duela berso edo poesiak etxeko ize-nik. Baña esan dezakegu ez duela inoiz izan? Arkitzen dira erri onetan ta paper txit zarretan berso euskerazko batzuek, anziña-ko pergamiño lizunduetatik paper, guretzat zarretara, igaroak, ta an poesiari ematen zaio *ereziaren* izena. Aztu bada, ez egotzi euskarari ta bai euskaldunai.

Ez arren erriertarik jaso bakoitzaren go-gora itzak jokaten ez badira. Gipuzkoan ere ez dabilta berdin. Batzuek diote *maitea, pakea...* beste batzuek *maitia, pakia*; aiek esatea nai dute *burua, lekua...* oek *buruba, lekuba*; *duben, zuben, duen* edo *zuen...* zo-

roa, eroa; besteak zorua, erua. Aurkeriak dira oiek, ta gizon aitua ez dira geldituko uskeria oetan.

Beste gauza bat. Ipui ondo egiñetan ez dira arkitu bear aurtxo ta nekazariak erraz adituko ez dituzten gauzak. Onetan uts egi-ten dute, egia badio Samaniego jaunak. ipuilari geienak. Erokeria andia bestera egi-tera, nola litzakean baserriko neskatx ba-tentzat erostea dama mundutarrentzat bear bada geiegiak diran jantzi pitxituak.

Nola guziak ez dakiten euskera ondo, adi-tuak izan ditezen izen batzuek, ipiñiko da bersoen oñean beren azalketa edo esan naia.

ANDRA ALARGUNA TA OLLOA

Andra alargunak etxean

Zedukan zori onean

Ollo arrautzaria.

Zan bai ekuskarria

Egunoro ipintzea

Utzi gabe arrautzea.

Dio pozez bere artean:

—Ematen diodanean

Aldi batez artoa

Arrautza egunekoa

Badit beti ipintzen.

Zer baldin eramaten

Badiot nik bi bider?

Arrautza bat ez da ezer;

Emanik jan aldi bi

Egingo ere nau ni

Andi biren jabe.

Nola asmatu ez dube

Gauza onelakorik?

Ala, ero erorik

Gizendu zan olloa,

Ta arrautza batekoa

Alpertu zan guzia.

Beti izan da egia:

Geiegi billatzea

Ezer gabe gelditzea.

OTSOA TA ANTXUMEA

Aunz bat zijoan basora
 Antxumea etxean itxirik
 Okulluban ondo gorderik
 Irten ez zezan kanpora.

—Kontu —diotsa-- ez irten
 Biurtu nadin artean,
 Eta iñor bada atean
Oles oles egiten
 Ez idiki beingoan:
 Zaude iratzarririk
 Ta begiak idikirik
 Ni an ote nagoan.

Zelata dago otsoa
 Esan ziona aditzen,
 Baña goseak estutzen
 Zuen agitz gaiztoa.
 —Antxume aragia—
 Dio— da txit samurra,
 Baña bear da gezurra
 Neretzako giberria (14).

(14) *Giberria*=ganado lanar.

Dijoa ixillik atera
Aunz amaren soñuaz
Asmo gaiztoz artuaz
Ta onela arrapatzera.
Antxumeak du gogoan
Bere amaren esana,
Asko maitez emana
Basora zan ondoan.

Ala atearen zirritutik (15).
Daramazki begiak
Ta erakusten dio argiak
Zegoan leku ezkututik
Zala bere etsai otsoa,
Ez bere ama maitea.

—O malmutz (16) gosebera!
Zein aizan i gaiztoa!
Ala gogoz kotatik
Diotsa bere etsaiari.
Eta, zer ipuiak gazteari?
Enzun bera bertatik:

*Artu bear dira gogoan
Zar jakintsuen esanak
Kalte artuz (17) eman diranak;
Ez utzi iñoiz alboan.*

(15) *Zirritua*=resquicio.

(16) *Malmutza*=taimado.

(17) *Kalte artuz*=por experiencia del daño.

LAPURRAK ETA OLLARRA

Etxe batean lapurrak ziran sartu;
Nai zituzten bazterrak aztertu
Goi-goitik eta bera.

Gero ere ez zuten ezer atera:
Ollar zar bat bai. Ze izakaria! (18)

Baña lapurrentzat ona da guzia.

—Artu dezagun —diote— lumati ederra (19)

Gangor gorri, allatsu (20), buru arroa

Aragiz lodi, mamintsu, mardoia,

Guretzat izango da gaur eperra.

O nolako aparria

Goatzeko sabel goseberia!

Bazeramaten ollarra iltzera,

Eltze batian egosten ipintzera.

Eman zion ollarrak negarrari.

—Zertako nauzute ni, o gizonak

Ezpaditut aragi samur ta onak!

Ordea guzia alperrik

Lapurrak ez dutelako errukirik.

Ollarrak jardun ta jardun ber bera:

—Zertarako naramazute ni iltzera?

Artu baninduzute ollasko nintzanean

Samurra izango nintzan ezpañean.

(18) *Ze izakaria!* = ¡qué bella cosa!

(19) *Lumati ederra* = el bien plumado.

(20) *Allatsua* = cola poblada.

Ill dedilla ollanda biguñ ta gozoa.

Ollar zarra, ze janari zozoa! (21)

Nakutsute zarturik

Gogor, gauza ez, ta zaildurik.

Ez naiz bizi ni iñoren kaltean:

Gizonak esnatzen ditut gabea.

Bizi naizala banaiz zerbaitako;

Iltzen banazute, ez ezertako.

Nere soñua da txit aitua.

Ta iratzartzeko loak artua.

—Egitekoaren bizarra! (22)

Gangot andiarekin aiz gangarra.

Euk emandek iltzeko erabakia

Ire lepoa izateko ebakia.

Dituala —diok— gizonak iratzartzen

Ta jaiki ditezen gabaz, soñutzen?

Ori berriz lapurren aurrean?

Galdua aiz gaur gure batzarrean (23).

Eroa, orretan zia gok gure kaltea:

Iretzat ere bai orain iltea.

Gaiztagiñak ez du nai argirik,

Ez da ere izaitea ezaguna:

Okerrerako nai du illuna

Ta ez idukitzea ekuslarik.

(21) *Janari zozoa*=¿qué precioso alimento!

(22) *Egitekoaren bizarra*=¿bella hazafia!

(23) *Batzarrean*=en el concilio o junta.

BASERRITARRA TA BASAURDEA (24)

Baserritar bati basurdeak
 Egiten zizkon bere soroan
 Kalte asko, gari ta artoan
 Ta igestzen zion abereak.
 —Zer? —dio— Ez aut nik artuko
 Ta noiz edo noiz eskupetuko?
 Etortzen zitzaion gabaz sarri;
 Alako batean eskuak zizkon ezarri.
 Bai bere zorionean
 Ipintzen zuela bere mendean.

(24) La narración difusa de esta y algunas otras fábulas en poesía no debe ser censurada. Se ha procurado agradar a los rústicos habiéndose pintado las circunstancias de los hechos según uso del país. Hace también parecer más fecundo a nuestro idioma, y semejante ampliación hace más elocuente la narración.

Para no incurrir en el gran vicio del monotonismo que adormece los sentidos y hace enfadosa la oración más elocuente, cuando, por el contrario la variada armonía deleita el ánimo y aviva la atención, se ha procurado la variedad de metros sin echar en olvido nuestro común *zortziko*. Pero es preciso confesar que los versos en decasílabos pareados con la alternativa de pies quebrados o de siete sílabas, tienen no sé qué mayor y más agradable armonía. Con todo será muy fastidioso este metro, si no se lee con sentido y expedición: ¿y habrá muchos bascongados que así los lean?

Ebakitzen dio ezker belarria
Largatzeko ala ezagugarria.
Bidaltzen du bada ala basora
Biurtu ez zidin berriz sorora.

Sendatu zitzaionean zauria,
Ezpazuen ere lengo belarria,
Gerta zitzaionaz azturik
Ekusi zuen soroan sarturik.

Igesa artu zion;

Arrapatzeko astirik eman etzion.

Beste gabeen dago zelatatzen

Ta dakus artoak lurreratzen.

Belar-bakoitzak (25) marra marra.

Nola zaldi batek garagarra,

Apurtzen zuen bere ortzetan

Biurtzen zuela iriñetan.

Baserritar gaixo kaltekuak

Egotzi ziozkan berriz eskuak.

Ebakitzen dio belarri eskuikoa

Largatzeko ala belar-motzekoa (26)

Gurrinka (27) dijoa au basora

Odola zeriola, ez sorora

Geiago joateko asmoaz.

—Ai, ai! —dio— Zergatik zoaz

Kalte egitera bazterretan?

Ez dezu arte ale lur arbietan (28)

(25) *Belar-bakoitza* = de una sola oreja.

(26) *Belar-motza* = el desorejado.

(27) *Gurrinka* o *urumtzaka* = gruñendo.

(28) *Lur-arbia* = nabitos subterráneos, alimento apreciado por el jabalí.

Zerekin gosea ase ugari?
Zertako baserritar gaixoari
Galdu zuk izerdia,
Ta bere urte guziko janaria?

Sendatu zan berriz belar motzekoa
Ta gogora zitzaion arto sorokoa.
—Banoa ara —dio— naiz arifña
Txakurrakifñ jostatzera egifña.
Ez bada beldurrik,
Jateko hear ez det belarririk.

Dijoa gelditxo soro maitera:
Belarriak daramazki etxera
Otsik ote dan ango atean,
Ez baldin bazan bera bitartean
Artoz asetzeko atsegifñez
Ez izuz, ikaraz ta beldurrez.

Baserritarra orduko soroan
Bere morroiakin zelata zegoan
Ala dute arrapatzen
Ta lokarri sendoakin gatigatzen.
Urde zatarrak ordu ain estuan
Eskintza ederrak egiten zituan.
Enzuterik ez zaio ematen
Bai berriz aserrez esaten:
Kaltegille (29) gaiztoa!
Zergaitik izan aiz ain eroa?
Ekusi dek nere onegitasuna,

(29) *Kaltegiña* o *kaltegillea*, se usan indiferente-
mente, como *auspogifña* o *auspogillea*.

Nik ere bai ire gaiztotasuna.
Ez ziagok barkaziorik,
Ez iri bizitza largatzeko gogorik.
Errori aiz irugarrenez gure eskuetan,
Burnia izango dek ire saietsetan.

Au esanaz iltzen dute beingoan
Artu ere bai morroiak lepoan (30)
Poz pozik etxera eramateko.

Ala biaramonean

Ipiñi zuten zatarra zaldi gañean.
Artzen dituzte burni zulatuak (31)
Su-auts (32) ederrarekin prestatuak.
Abiatzen da sutunpa (33) gogorra
Esna zezakeana ordi konkorra.

—Zer da au? —diote erriko mutillak,
Atso, agure ta umetxo sotillak.
Asitzen da herriz su-aize soñua:
Alde askotan ekusten da lañua.
Jesten dirade errira;
Basaurde zatarrari daude begira.
Dijoaz andiki baten etxera

(30) Unos aplican esta voz al cuello, haciéndole sinónima con *iduna*. De aquí *lepoa ebaki*. Otros la aplican al *hombro*, y la sinoniman con *solbardea*, *besaburua*, *soña*. Así dicen: *Gurutzea lepoan eraman zuen Kristok*. Los poetas tienen más amplias facultades para variar, porque está escrito: *Pictoribus, atque poetis, quid libet audendi semper fuit cequa potesta*.

(31) *Burni-zulatuak* = cañones de escopeta.

(32) *Su-autsa* = pólvora, o polvo inflamable.

(33) *Sutunpa* = ruido del fuego, o tiroteo.

Itxusi arekin eskintza egitera.
Dakuste, baña arriturik.
Ez zuela basaurdeak belarririk.
Biltzen da ara gizontegia:
Ateratzen ere zaie zaragia.
Au bai zala atsegiña!
Ardoaz onratzen kaltegiña.
Ebakitzen diote burua:
Jende guzia dago arritua
Ez zuelako garuñik (34) agiri;
Ezin ere zioten igarri
Zertan zegoan ipuia;
Ote zan gezurra, edo egia.

—Ez zaitezte, jaunak, arritu:
Dakutsutenaz ez miraritu:
Dio batek asko jakinik
Ta ipuia egiaztu nairik.
—Nola muñak iduki
Basaurdetzarrak belarri bi
Galdu ezkerro, badoa sorora.
Ekarri gabe leena gogora?
Gastiguak ondutzen ez duena
Da muñgabe ta zoruená.

(34) *Garuña*. Otros dicen sólo *muña*, pero es más descriptiva la primera, porque significa la sustancia o tuétano de la parte superior, *garai-uña* y *muña* no especifica el paraje. *Uña*, *una* o *muña* tienen el mismo significado.

ZAKURRA TA KATUA

Txakur-katuak, nork sinistu?
 Zeuden bein erretillu batean
 Alkarrekin jaten pakean,
 Ta ez ziran batere tximistu (35).
 Etxeko jaunak bertatik
 Auzokoai, erakusteko zergatik,
 Deiturik, abiatzen zaie esaten:
 —Nola ez dituzute ekusten
 Etsai gogor bi paketurik
 Eta mai batean alkarturik?
 Txakur ta katua adiskide,
 Balira bezela senide?
 Zer egin lezake ekanduak
 Eta gauza batera oituak?
 Beazuna bera eztitu;
 Gizon sutsua otzitu (36);
 Aserre erraza bigundu;
 Okerrena ere zuzendu.

(35) *Tximistu* = chispear.

(36) *Otzitu*; otros *otzu*. Así Larramendi, y la consonancia pedía *otzitu*.

KATA-MOTZA TA ZAKURRA

Kaiola burnitsuan

Kata-motz (37) uzua (38) zegoan sarturik
 Zekusala txakur bat pozturik
 Kate gabe, jolas, ta parlanzuan (39).
 Desberdintasuna (40) ekusi zuenean.
 Sartu zan katamotza aserrean.
 Zerua besoz nai du arrapatu
 Eta zeduzkan burniak urratu.

Diotsa bada deadarrez,
 Biraoz, araoz, eta aserrez:

—Nola ni ain itzaltzu ta ariña izanik
 Naukate emen estu ta gatigu?
 Zera nerekiko argala zu
 Ez dezulako nere atzapar, ez zafiik.
 Dezu ala ere aldi gozagarria,
 Ara ta onako bizitza ibiltaria,
 Berriz ni atsekabez
 Burni artean naukatela beldurrez.

(37) *Kata-motza*. Es especie de tigre. Se ve alguna rara vez esta mala fiera en estos países, causando grandes estragos en ovejas y ganado vacuno. La mayor corpulencia de los legítimos tigres no impide el que a éstos se aplique el mismo nombre.

(38) *Uzua*=fiero.

(39) *Parlanzuan ibilli*=Andar en diversión. Es locución muy usada: *Txakurrak dabiltz parlanzuan*.

(40) *Desberdintasuna*=desigualdad.

—Ondo da —dio txakurrak— ez arritu
Egoatea zu orrela ta ni askatu (41):
Zera atzapartsu ta odol zalea,
Ni gizon ta etxeen gordetzallea.
Ezpaziña ere alakoa
Ezin izan nindeke zu bezin gaiztoa.
Sartzen diezu guziaz beldurra:
Egia da au, ta ez gezurra.

*Zertako dira indar ta putzak lurlean
Izango badira beti gure kaltean?
Zenbat obeago bigun izaita
Ta biotz errukitsua agertzea?*

*Ez dezu nai katearik?
Ez bada inoiz egin kalterik.*

(41) *Askatu*=suelatamente (en adverbio).

KATU EIZARI BASOKOA

(Zortzikoan)

1

Anziña erri batean
 Bizi zan katua,
 Geldi egon bearrez
 Guziz gogaitua.
 Igesa artu nai du
 Etxetik basora
 Igarotzeko egunak
 Bere gogo osora.

2

Dio: —Zer da etxekoak!
 Emen nik sarturik?
 Egon bear ote det
 Beldurrez beterik?
 Sukaldera banoa
 Etxe neskameak
 Nereganatzen ditu
 Bere aserreak.

3

Illiti ta berzunak
 Dizkiz aurtigitzen,
 Nere bizkar ezurak
 Asko minberatzen.
 Au da ematen didan
 Egunoko-ogia,
 Ala artu dezadan
 Ganbara bidia.

4

Narabilte etxean
 Sarri illariaz (42)
 Lapurreta guziak
 Niri egotziaz:
 Asmo txatar onekin
 Beti naute zaitzen;
 Oramayan okelak
 Dizkide gordetzen.

(42) *Illariaz erabilli* = Traerle a uno persiguiéndole de muerte.

5

Alako baten bada
 Dia neskamea
 Beste toki batera;
 Baña sukaldea
 Txakur baten pekora (43)
 Didate largatzen,
 Utzi nai ez didala
 Onek urreratzen.

6

Katuak bear dute
 Bizi ganbaretan,
 Billatu janaria
 Etxe saguetan.
 Suak argaltzen ditu
 Ta guziz makaldu.
 Ala gure mixotxo
 Guziaz da galdu.

(43) *Norbaiten pekora egon* = estar a la custodia de alguno.

7

Au da enzuten dedan
 Soñu betikoa,
 Gero estaltzen dute
 Kontuz lapikoa,
 Arrapa ez dezadan
 Geli egosia,
 Ta bere janaritik
 Ase nik gosia.

8

Egun pakezko gabe
 Nor bizi onela?
 Ez da neretzat obe
 Iges bereala
 Mendiara egitea
 Zer jan billatzeko,
 Sabel ain muuritua
 Noiz bait betetzeko.

9

Katuak bere asmoa
 Artu zuen laster
 Eizan arrapatzeko
 Ollagor, ta eper,
 Baso-satorrak eta
 Erbi gaztetxoak,
 Birigarro, zozoak,
 Beste txoritxoak.

10

Basoan artu zuen
 Leku ezkutua:
 Ala dago gorderik
 Gure bizartsua,
 Kateak egozteko
 Pizti ta egaztiai,
 Bidea zabaltzeko
 Este zimurtuai.

11

Laster zan bai gizendu
 Mixotxo gurea;
 Mendian ez du izaten
 Etxeko gosea.
 Dio: —Au janaria!
 Samur gozatsua!
 Errian bizi dana
 Da txit zoratua.

12

Katu eremutarrak
 Ez du nai belarrik,
 Ez aran, ez mispilla,
 Ez baso-sagarrik.
 Aragi samurretan
 Dago koipetua,
 Baraua dadukala .
 Betiko aztua.

13

Zebillela onela
 Pozez zoraturik,
 Dijoaz eizariak
 Su-armak arturik,
 Laguntzat dituztela
 Eiza-zaukariak (44),
 Billatu ta iltzeko
 Eper ta erbiak.

14

Usaika zebillela
 Txakur bat lurrean
 Beingoan gelditu zan
 Sasitza aurrean.
 Zegoan an padarra (45)
 Ixil ta gorderik;
 Txakurrak nai ez zuen
 Aldatu tokirik.

(44) *Etza-zaukariak* = perros de caza.

(45) *Padarra* = ermitaño, o el solitario; voz muy usada entre los rústicos.

15

Eizariak dirade
 Ingurura biltzen
 Ollagor, eper edo
 Erbiak irtetzen
 Ote zuen sasitik
 Sua egiteko (46),
 Illik, eskuz artuta
 Brujakaratzeko (47).

16

Uste uste gabea,
 Dakuste katua
 Sasipe sakonduan
 Guzia sartua,
 Zeukala aldamenean
 Ezurak ugari;
 Zala kaltegarria;
 Zioten igarri.

(46) *Su egin*=disparar la escopeta. Así se explican nuestros *gizones*.

(47) *Brujaka*=viene de burujakea.

17

Amorruz ta erneguz
 Dute arrapatzen,
 Lokarri sendoakin
 Gero gatigatzen,
 Esaten diotela:
 —Eiza-galtzallea!
 Emen galdu bear dek
 Ire bizitzea.

18

—Gizonak, zer egin det?—
 Diotse katuak—
 Ager zakizkidatzu
 Nere pekatuak.
 Baldin zuen laguna
 Banaiz ni onetan.
 Zertako ipintzea
 Gaur ni kateetan?

19

Agintaria bada
 Kaltegiñ andia,
 Nola zigorperatu
 Lapurtxo txikia?
 Lapur artutzalleak
 Badira lapurrak,
 Irentsiko dituzte
 Mami ta ezurrak.

ASTOA ETA OTSOA

Astoak bizkar ezurrean
 Zeukan zori txarrez zauria;
 Zan ikuskizun negargarria
 Belatzarrak ekin zionean:
 Alperra ostikadea
 Eta erratza gogorrak egitea.
 Astazaia begira dago farraz
 Ta belea jaten aukeraz.
 Gauza errukarria!
 Astoaren ez egotea errukia.
 Ekusten zegoan larpetik otsoa
 Zein larri zerabilten astoa:
 Astazaiak bereaz ez errukirik
 Ez belatxarrari iges erazoterik.
 —Zori gaiztokoa ni,
 Bere eskupean banagi ipiñi.
 Au zion otsoak, ta ez gaizki;
 Bada ondo aztertu badidi.
Gizon gaiztagiñ otsotuak
Daude ipui onetan sartuak.
Beti bizi bear dute oek ikaraz,
Ez jolasetan ta algaraz.

A Z K E N A

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

- 1.—R. Artola
SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko. (Aitua).
- 2.—M. Soroa
GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU.
- 3.—F. Apalategui, S. I.
EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
- 4.—Pepe Artola
USTEZ LAGUN DETAN ta beste bertso asko.
- 5.—P. Urruzuno
EUSKALERRITIK ZEBURA ta beste bertso asko.
- 6.—Toribio Alzaga
RAMUNTZO.
- 7.—Ramos Azkarate
GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
- 8.—Antero Apaolaza
PATXIKO TXERREN
- 9.—Bitoriano Iraola
OROITZAK ta beste ipui asko.
- 10.—Bertsolariak
ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA
(1962).

- 11.—Piarres Larzabal
BORDAXURI.
- 12.—Bilintx
BERTSO TA LAN GUZIAK.
- 13.—Mariano Izeta
DIRUA GALGARRI.
- 14.—Piarres Larzabal
IRU ZIREN
- 15.—Bertsolariak
EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
- 16.—Alfonso M.^a Zabala
GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
- 17.—Antonio M.^a Labayen
MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19.—Antonio Zavala, S. I.
TXIRBITA (Bizitza ta bat bateko bertsoak).
- 20.—Franzisko Goñi, S. I.
LURDESKO GERTAERAK.
- 21.—Piarres Larzabal
HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
- 22.—Bertsolariak
**BERTSOLARIEN TXAPELKETA
(30-XII-1962).**
- 23.—**AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.**
- 24.—Fermin Imaz
BERTSO GUZIAK.
- 25.—A. P. Iturriaga
JOLASAK.

- 26.—Alfonso M.^a Zabala.—A. Larraitz.—Juan Mir
PERIYAREN ZALAPARTAK. — Melitona'
ren bi senarrak. — Mendibe'tarren larri-
yak. — Utzi bearkol — Gizon bikañak.
- 27.—Bertsolariak
AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
- 28.—Bizenta A. Mogel
IPUI ONAK.

